

"Apaizak eta sekularrak, denok denokin lan egin behar dugu. Hori da orain dugun erronka"

Mikel Garziandia Goñi / 2-4



Asteburuan, San Saastin / 11



Sakanak 174 biztanle gehiago ditu. Dagoeneko 20.541 pertsona bizi dira ibarrean / 12-13

Dorrao eta dorrobarrak protagonistak diren liburua argitaratu du Mikel Razkinek / 8

Txikonon Annapurnako espedizioa, berarekin lau egun egon ziren sakandarren begietatik / 18-19

Maite Martinez Marquez altsasuarra bideojoko baten garapen proiektuan lanean ari da / 22-23

SINADURAK



"Lan polita izaten da itxaropen hori jendeari ematea"

MIKEL GARZIANDIA GOÑI PALENTZIAKO GOTZAINA

Zamartze utzita Palentzia hiriburuan da etxarriarra, elizbarruti hartako apezpiku ordenatuko baitute bihar

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL
Palentziako elizbarrutiaren gobernu pastoralari adinagatik uko egin zion Manuel Herrero Fernandezek. Vatikanoko ukoa lastailaren 31n onartu zuen. Horrekin batera, Palentziako apezpiku berria izendatu zuen: Mikel Garziandia Goñi etxarriarra.

Aditzera zegoen gotzain izanen zinela. Kerik gabeko surik ez da!
Zenbait alditan atera da nire izena hedabideetan. Batzuetan modu geldoan, batzuetan nahikoa nabarmen. Oraingoan, bai.

Zer moduz agurreko elizkizunetan?
Gozatua izan da. Askotan Sakanakook ez gara sentimenduak adierazteko jendea, suposatzen da estimazioa eta maitasuna badagoela. Egun hauetan, egiten ditudan mezetatik aparte, Javier Aldabe Arbearekin eta Jose Antonio Apezetxea Escuderorekin ordezkatu gara, eta Bakaiku, Iturmendi, Etxarri Aranatz eta Lizarragan egon nintzen lehendabizi; Arruazun, Lakuntzan eta Uharteko Arakilen ondoren. Segituan, nik normalean egiten nituen Unanu eta Arbizu izan ziren. Atzenekoa, nola ez, Aralarko santutegikoa izan zen, igandean. [Haren akaberan Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako presidente Joxe Mari Ustarroz Razkinek gotzainari dagokion bularreko gurutzia eman zion. Gainera, kofradiaren izenean txapela eta artzainen makila eman zizkion. Guadalupe Escu-

dero Guillen mojak kalota jarri zion].

Jendeak zer esan dizu?

Oso gozosa eta garratza. "Zer poza, eta zer pena!" Hori esaten dute. Hartu-eman izan da. Gainera ikusi dugu hainbat eta hainbat proiektu garatu direla, eta beste batzuk martxan daudela. Jendearen kezka izaten da: "eta orain zer?" Orain, ongikoz, beste ordezkari bat etorriko da. Apezpikuari hori eskatu diot. Parrokietan, eta batez ere santutegiko proiektu handi horretan, batzordeetan lan egiten ari ginenez, lan taldeak osatuta daude. Lan horien berri askok bazekiten. Zamartzeko Guadalupe Escudero Guillen administratzaile lanetan ari da. Lasai noa, hementxo lantaldeak indartsuak direlako. Bestalde, bertan bizi den Poloniako apaiz bat dago. Daudenen artean banatuko dituzte mezak. Hasi era batean, behin-behinean, horrela egingen dute. Elizbarrutiak norbait bidaltzen badu, normaltasunera itzuliko da dena.

Sakandar mordo bat joanen da Palentziara.

Bai, bai. 400dik gora daude momentuz. Eta azken momentuan jendea izena ematen ari da. Hori autobusetan joateko, bost doaz. Eta gehienak sei jatetxetan bazkaltzera geldituko dira. Baina badakit jendea bere kabuz ere badoala.

Babesa, ezta?

Bai. Eta etxe giroan. Lehengusuak eta gu, etxeokoa, txistulariak gara. Taldeari katedraletik hotelera txistuarekin lagundu nahi diegu. Nafarroako apezgaiak oso musikazaleak dira, fanfarre bat badute. Behintzat, entzun behar gaituzte.

Nolakoa da gotzain baten kargu hartzea?

Sakramentu guztiak izaten diren bezala, meza bat da. Lehendabizi izaten da hitza, irakurgaiak. Bigarrena, eukaristia da. Kasu honetan, tartean ordenazioa egiten da. Diakono, apez edo apezpiku ordenazioa izan daiteke. Gotzainen ordenazio kasuan, normalean, agurra senide gotzainei egiten diezu. Aurkezpena nahikoa solemnea da. Ondoren otoitz bereziak daude. Gero buruan krismaz gantzutu eta apezpikuari gotzainaren ezaugarriak ematen zaizkio, hau da, buruko mitra, makila edo makulua eta eraztuna. Bestalde, katedral hitzak aulkia esan nahi du. Beraz, katedraleko aulkian eseri, nolabait adierazteko aurrerantzean hor artzain eta erakuste lanak nik egingen ditudala. Ondoren kristau berriari agurra. Ospakizunak segituko du, eta haren buruan, hasieran, joaten den gotzainak hitza egiten badu, familia kotsakratzen nauenak egiten du, nuntzioak. Mezaren akaberan nik denak agurtzen ditut, esker ematea, eta jendea agurtzera etorriko zait. 11:00etan

hasiko da eta 13:00ak pasatxo bukatuko da. Asmoa da 14:00etarako ekimena bukatzea eta 14:30ean denak bazkaltzera joatea. **Palentziarrekin harremanetan egonen zara, ezta?**

Duela lau aste etxeokoa joan nintzen. Hango nire kolaboratzaileekin lehenengo kontaktua izan nuen. Non bizi behar naizen ikusi nuen: apaizen erresidentzia bat dago eta han gotzainak apartamentutxo bat du. Kalkulatu behar dut zer liburu eta zer gauza eraman. Ilbeltzaren 15ean gauzak eraman nituen. Ondoren, erretiro moduko bat egin dut Palentzia ondoan dagoen fraideen monasterio batean. Lasai, hausnartzen, otoitzean egon naiz egun batzuk. Atzo arratsaldean entsegu izan genuen. Etxekoak eta lagunak, batzuk kanpokoak, Palentziara gaur iritsiko dira. Eta larunbatean buru belarri hor sartuta.

Zamartzen bizi izan zara eta baratze ederra lantzeko aukera zenuen hemen. Han?

Faltan botako ditudanen artean daude sasiak garbitzeko makina, traktoretzua... Banuen izerdialdi batzuk botatzeko modua. Hango prentsa arduraduna Txomin da, palentziarra baina Gasteizen jaioa eta euskalduna. Esan zidan: "nahi baduzu, han ere baditugu baratzak. Horregatik, baldin bada, zu lasai". Zerbait pentsatu beharko dut.

SAKANAZ

Aralarko santutegian proiektu handia duzue. Lanen bi fase eginda, hirugarrenaren atean, eta alde egitea tokatzen da.

Aurreko urtean Nafarroako Parlamentuan diru sail bat lortu genuen alderdi guztien oniritziarekin. Arkitektura, ingeniari, arkeologia eta administrazio kudeaketa kontuak bukatzen ari gara. Aurtengo apustua da administrazioa bustitzea, proiektua Nafarroa guztiarendako onura handia delako. Egitasmoa nazioartekotze asmoekin oso ongi lerrokatzen da, hainbat arrazoi eman diegu horretarako: hainbat santutegi elkarrekin lanean ari gara dagoeneko; Sakanako bizikleta ibilbidea irekiko da; Donejakue bidea eta San Migelgo santutegien bidea Aralarren lotzea... Horretan ari ginela, banoa.

Udaberriari hasi nahi dituzue ostaltzeko eta aterpeko lanak, ezta?

"ORAIN, ONGIKOZ, BESTE ORDEZKO BAT ETORRIKO DA. APEZPIKUARI HORI ESKATU DIOT"

"GURE GESTIOEN EMAITZAREN ZAIN GELDITU BEHARKO DUTE HEMEN GELDITZEN DIRENEK"



Zamartzen egondako azken egunetako batean izan da GUAIXE Mikel Garziandia Goñirekin.

Lehenbailehen hasia nahi genuke. Baina aurrekontuak otsailan onartuko ditu Nafarroako Gobernuak, eta itxaron behar dugu. Horren arabera, elizbarrutiak erabakia hartu beharko du. Elizbarrutia laguntzeko prest dago, baina dirutza da. Gure gestioen emaitzaren zain gelditu beharko dute hemen gelditzen direnek. Apika, gauza litzateke 2024an ostatua egitea, eta, apika, 2025ean gazteendako aterpea. Guk ostatuarekin presa gehiago dugu, 2025erako hitz emanda daukagu Europako San Migel santutegien asanblada Aralarren

egitea. Gainera, Renoko Unibertsitateko eusko ikasketen katedrak aurreratu du finantzatuko lukeela esmalteei buruzko nazioarteko sinposiuma 2025ean. Bestalde, Lourdes de Sanjose esmalteei buruzko liburua aurkezten ari da, Frantzian batez ere. Gure lan hori "zarata" ateratzen ari da, eta jendea hemen dagoenari buruzko interesa azaltzen ari da. Gainera, aterpe eta ostatua mendizaleendako... Proiektu asko daude, eta behar asko zeuden. Ostatuarekin hainbat proiekturi bulkada polita emanen diegu.

"APAIZ ASKO ZEUDEN, OSO LANGILEAK. BAINA, ONDORIOZ, LAIKOA ERABAT PASIBOA ZEN"

"LAIKOA DA ARDURADUN NAGUSIA. ZEREN ELIZA DA: KRISTAUAK MUNDUAN"

Hala ere, telefonoa hartzeko prest egonen zara, ez?

Bai. Garbi dut nire telefono mugikorreko zenbakia mantenduko dudala. Hemen daudenei informazio gehiena eman diet, baina beti egonen naiz hor. Gainera, Palentzia Donejakue bidean dago. Gure santutegiko proiektuan San Migelen santutegien ibilbidea eta Donejakueren arteko lotura egitea ere sartzen da. Hor aitzakia bat badut harremanetan segitzeko.

Nola dago fededunen komunitatea Sakanan?

Badaramatzagu urte batzuk pastoraltza plana garatzen. Aurreko urtean lan taldeak osatzen saiatu ginen. Lau lan esparru daukagu: liturgia, prestakuntza, gizarte eta ebanjelizatze lanak. Talde horien arduradun jende multzo bat dago. Aurten prestakuntza eta informazioa garatzearen aldeko hautua egin dugu. Ikastaroa hasi dugu, bost larunbat iraunen duena. Dagoeneko bi saio izan ditugu. Ikastaro horretan 70 pertsona matrikulatuta daude. Parrokien elkarteko lan horretan pitteka-pitteka aurrera egiten ari gara. Aurten go asmoa da talde horiek indartzea, ekitaldi horietan jarraitu eta prestakuntza egin.

FEDEAZ

Garai batean herri bakoitzean apaiz bat zegoen. Kristau komunitateek, edo fededunek, pauso bat aurrera eman eta haiek ere "erakusgarri" izan beharko dute?

Bai. Kontzilioaren apustua hori izan zen. 60 urte pasa dira. Nafarroan, eta hainbat lekutan, genuen arazoa zen oso eliz klerikala zela. Ez zentzu txarrean; apaiz asko zeuden, oso langileak. Baina, ondorioz, laikoa erabat pasiboa zen. Orain urritasun eta eskas izate hori, guretako oso aukera ona da sekularrek haien tokia hartzeko. Orain arte esaten genuen: "laikoak lagundu behar dio elizari". Lagundu? Ez. Laikoa da arduradun nagusia. Zeren eliza da: kristauak munduan. Beraz, apaizon lana da sekularrei, laikoei, beraien bizitzan laguntzea da. Baina ebanjelioa jendeari iristeko kristau bakoitzak bere giroan egin behar du. Aita Santu Frantzisko horretan gogoz ari da: "eliza gizartearendako, mundurako da; denen onerako. Ez da eliza elizarendako". Hori kosta egiten da. Zeren kristandade deitzen diogun horretan, hemen

1.400 urtetan, nahiko ongi funtzionatu du. Orain garai aldaketa tokatu zaigu. Ikasi behar da pitteka-pitteka hortik joaten. Elizarendako askoz hobea da gaurko egoera duela 100 urtekoa baino.

Fededun batzuen sentipena da garai bat badoala?

Bai, dudarik gabe. Eliza hasi zenean, lehendabiziko mendeetan, Jesusek ebanjelioan esaten duen bezala: "zuek zarete gatza, zarete argia, zuek zarete legamia". Askotan izan dugu amets bat: masifikazioa; kristautasuna dela gizarte dena kristautzea nola edo hala. Orain ikusi dugu lurreko hainbat eta hainbat nazioetan kristauak gutxiengo bat direla. Baina gutxiengo bat izateak, horrek fedeari ez dio indarririk kentzen. Ia-ia esan genezake ohitu behar garela: kristauak egon behar dugu oso gizarte anitz batean. Eta kristau bakoitzak benetan maite baldin badu, barkatzen badu, zerbitzatzen badu Jesusek esaten duen bezala, horrek, nolabait, galdera ikur bat jartzen dio besteari: "pertsona hori zergatik da horrela? Zergatik du halako itxaropena? Zergatik saiatzen da beti bestearen alde jokatzeko?" Hori izan beharko luke gure gutuna. Eta askotan hori ez da horrela izan.

Fedearen transmisioa bermatuta dago?

Batere ez. Fedearen transmisioa banan-banan egiten da. Garai batean, agian, familietan automatikoki ematen zen. Sakramentuak kintadak bezala ziren. Hori jada hautsi zaigu, katekesia erori zaigu. Orain beste modu batean gaude. Pitteka-pitteka jendea etorriko da. Gu jendeari proposamen hori egitera aterako gara. Transmisioa behar du izan, ez gizarteko eskema bat, baizik eta banan-banan bizi den zer bait.

Lehen ez bezala, beste erlijio eta izpiritueltasun batzuekin elkar bizi da orain kristautasuna.

Eta horrek ematen dio gure aniztasunari halako zentzu bat. Alde batetik daude, nolabait esanda, ekialdeko izpiritueltasunak, budismoa-eta. Erlijioa baino gehiago filosofia bat dira, hor ez baitago jaungoiko pertsonalik. Gure erronka dira, alde batetik, Ameriketatik eta hainbat tokitatik etortzen diren ebanjelikoak. Amerikar katoliko asko etortzen direnean gure parrokia utzi egiten dituzte eta protestantismora pasatzen dira.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

« AURREKO ORRIAN HASTEN DA

Hor galdera ikur handi bat dugu: Zergatik? Bestetik, islama gure artean dago. Gurea bezala, tekniki, erlijioa dira; liburuarena, beraien arabera. Hor ere badaukagu... Agian elkarrizketa zaila da, zeren islama eta kristautasuna eskema desberdinak dira. Baina estimazio bat, elkar ezagutza bat eta elkar errespetu bat landu beharra dago heldu diren urteetan. Horretan lan polita dago.

PALENTZIA, ETA ARDURAK Zein lan talde du apezpiku batek aldamenean?

Idazkari pertsonala du. Gero elizbarrutiko idazkaria dago, dokumentazioaz arduratzen dena, Natalia. Horietaz aparte bikario orokorra, pastoralta bikarioa, bikario judiziala (epaiketez-eta arduratzen dena) eta hainbat kontseilu daude: sekularren eta pastoralta kontseilua, apaizena... Hainbat erakunde daude. Gainera, katedraleko kabildoa... Aldi berean, elizbarrutiak erlijio bizitza du, Palentziak etxe asko ditu. Herri txiki asko dauzka mendialdean, Europako mendien hegoaldean, hemen Pirinioetan gertatzen denaren antzera. Leku anitza eta polita da.

Arimen artzain, saldoa handituko zaizu orain?

Bai, bai. Garai batean gure helburua hemengo eskualdea eta parrokiak ziren. Egia esan, elizbarruti txikia da: 157.000 biztanle ditu Palentziak, denak ez katolikoak. Horrek aukera emanen dit apaiz bakoitza, kristau elkarre bakoitza nahiko ongi ezagutzeko. Nire erronka da lauzpabost hilabetetan, uda arte, jendearekin egotea eta entzutea. Beraiek, jada, pastoralta plana martxan dute, 2025ean oraindik martxan egonen dena. Nik lan hori animatu, eutsi, pixka bat ikasi non eta zertan ari diren. Gauzak ikusten ditudanean, saiatuko naiz nire ekarpena ere egiten.

Hango eta hemengo elizaren egoera antzekoa da?

Bai. Palentzia biztanlez husten ari da; horren erronkak eta arazoak ditu. Gizartean oso jende dinamiko bada: unibertsitatean, enpresan... Donejakue bidea hor dago, dinamizatzeke, ongi; turismo mugitzen da... Eliza barruko nire betebeharez aparte, nahi nuke gizarte horri animo eta itxaropen bat ematea. Zeren askotan gertatzen da jendea halako doinu baxuan bizi dela. Uste du

gauzak hemen gero eta okerrago doazela. Lan polita izaten da itxaropen hori jendeari ematea. Uste dut horretan lan polita dudala.

Gotzain batzarreko kide izanen zara ere, elizaren gobernua eta gaurkotasuneko gaiak jorratuko dituzu.

Ongi aukeratu nahi dut zein batzordetan sartuko naizen. Donejakue eta San Migelen proiektuan nahikoa sartuta nagoenez, Europako beste errealitate batzuekin harremanetan nago. Kontsultak egin nahi nituzke, eta hortik sartu. Apezpikuok batzordeak antolatzen eta erabakitzen dugu zeinetan ikusten dugun gure burua. Martxoan izanen dira hauteskundeak eta antolakuntza lan horiek. Ordurako garbi eduki nahi nuke nondik jo.

Aurten sinodoa despedituko duzue. Zer da?

Sinodoa eta sinodalitate hitza oso gauza garrantzitsu gisa erabili genuen Nafarroan 2017an. Erraz azalduta, elizak bere antolakuntzan eta bere izaeran hiru termino ditu. Bat da primatua, lehenetasuna. Jaungoikoa bat da. Elizbarrutian batek ordezkatzeko eta agertzen du batasun hori, apezpikuak. Bestetik, esaten dugu sinodalitatea dela: denok elkarrekin oinez, denok elkarrekin lanean. Printzipio hori jendartean oso alde batera utzita zegoen. Antzinako elizako elementu bat berreskuratzea izan da hori. Azkenik, kolegio edo kolegalitatea da, esaterako, apaiz denak talde bat osatzen dugula. Hiru printzipio horiek osatzen dute eliza. Oso eliza klerikalak ez zuen sinodalitatea kontuan hartzen. Sinodoa zen bakarrik elizbarruti batean berrikuntza lan bat egiten bagenuen, edo gotzainak elkartzen zirenean sinodo bat osatzen zuten. Orain hitzari eman zaio antzinako zentzu hori. Eta hori aberasgarria da, dudarik gabe.

Sinodoaren ekarpena izanen da eguneratzea eta berrarmatzea?

Eta elizaren antolakuntza eta funtzionamendua denon artekoa izatea. Apaizak berea den lana izan behar du. Baina bereak ez diren lanak, eta orain arte apaizak egiten zituenak, horiek sekularren eskuetan jarri behar dira, eta denok denokin lan egin behar dugu. Hori da orain dugun erronka.

Elizatik beretik esan da elizaren eta gizartearen artean deskonexioa egon dela.

Hori bi aldeetatik ematen da. Alde batetik, elizan egon daitezkeelako



Mikel Garzandia Goñi Aralarko aingeruaren irudia eskutan duela. UTZITAKOIA

halako mugimendu batzuk, halako nostalgia bat: "garai batean gehiagoinen, bagenuen botere gehiago". Tradizionalismoaren haritik, hori elizaren barruan arrisku bat izaten da. Baina, aldi berean, gizartean etortzen diren hainbat mugimendu eta ideia zailak dira kristautasunarekin bat etortzea. Oso sana da tentsio bat egotea. Elizaren asmoa ez baita munduarekin erabat mimetizatzea. Baizik eta munduaren barruan gaudelarik, Jesusen ebanjelioaren arabera, saiatu mundu horri halako itxaropen eta indar bat ematen. Tentsio hori

**"BAINA GUTXIENGO
BAT IZATEAK,
HORREK FEDEARI EZ
DIO INDARRIK
KENTZEN"**

**"OSO ELIZA
KLERIKALAK
EZ ZUEN
SINODALITATEA
KONTUAN HARTZEN"**


egotea ona da. Baina txarra da, esaterako, kristauok sentitzea behar dugula sekta bat izan, "mundu hau galduta dagoelako", eta gu gure zuloan sartzen gara. Hori txarra da. Baita ere txarra da munduak pentsatzea elizak ez duela ezer emateko. Hori gezurra da. Gizarte lanean gaur egun elizak egiten dituen gauzak egiten ez balitu estatuak porrot egiten luke. Zeren kristautasunaren nahia izan da beti denen ona bilatzea. Beraz, tentsioa ona da, baina elizan ere egunero ikasi beharra daukagu nola izan behar duen gure presentziak munduan. Hori oso gauza dinamiko da. Horrek jendea ikusi beharko du. Sinodoa horretarako da.

Ardura berrirako zer gaitasun izan beharko dituzu beharrezko?

Buah! Orain momentuz, lehendabizikoa da entzuteko eta pertsona ezagutzeko gaitasuna: nor diren, nola dauden taldeak, zer gertatu zaien, zein den beraien istorioa, nondik datozen... Hori bat, entzuteko ahalmena. Elkartzeko grina hori badut beti; ekipoak sortu, egon daitezkeen diferentziak onerako izatea eta ez gauzak izorratzeko... Batasun hori lortzea da apezpiku baten betebeharr nagusia. Herria bat da. Denok daukagu tokia. Denok jakin behar dugu non eta nola lan egin. Eta denok izan gaitzke erreferentzia bat beste guztiendako. Eta lehen esandakoaren haritik, kristau elkarrekin ez da sekta bat. Kristau elkarrekin ametsa da munduan egotea, jakinik mundutarrak ez garela eta gero beste bat dagoela. Baina bitartean, hori egia baldin bada, hemen lana egin behar da, Justiziaren alde borrokatu; hor dauden injustiziak eta pobreak, hor lanean aritu. Kanpoekin ere lotura sano batzuek egotea. Hiru horiek izanen lirarteke nire ardurak eta asmoak.

Zure fede ibilbidean aurrera egiteko, zer eskatzen duzu?

San Migelekin hartu-eman bat izan du. San Migelek adierazten du borroka bat badagoela. Borroka hori ez da batzuk beste batzuen kontra. Borroka hori denok daukagu barrenean. Nik Jaungoikoari eskatzen diodana da, alde batetik, trebetasuna eta aurrera egiteko indarra izatea. Eta, bestetik, erabateko apaltasuna, eta gai izatea besteak niretako zer ekarpen daukan ikusteko. Badirudi bi gauza oso desberdinak direla, baina biak lotu beharra dago: apala izan eta, zerbait badago, ausardia ere horri aurre egiteko.



ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Katuzalea naiz eta harro nago!

Hau da, AILUROFILIKOA naiz. Ailuros hitzak katua esan nahi du, eta philos hitzak, maitasuna. Horixe da katuenganako dudana: mirespena, erakarpina eta maitasuna.

Helduen artean hori esaten dudanean aurpegi arraroak jartzen dituzte. Katuak? Benetan? Aurreiritzi eta jarrera asko daude katuen inguruan. Adibidez, zer gertatzen da gure herrietan bizi diren katuekin?

Batzuk ez dira beraien presentziaz ere jabetzen, beste batzuk ikustean mesprezuz begiratzen dituzte eta gainontzekoek ikusi, irri egin eta ondo dauden ziurtatzeko azterketa azkarra egiten dugu.

Antzekoa pasatzen da bestelako "herri faunarekin". Adibidez, useokin. Batzuetan, haurrek, (gehienetan helduak "erakutsita") jolas bezala hauek usatzen dituzte. Baina biek ez badute jolasean modu berean parte hartzen eta disfrutatzen, ez da jolasa.

Bradley Millar-ek zioen bezala, haurrari beldarra ez zapaltzen irakastea beldarrarentzat zein haurrarentzat bezain garrantzitsua da.

HORIXE DA KATUENGANAKO DUDANA: MIRESPENA, ERAKARPENA ETA MAITASUNA

Kale katuek kalean bizi eta kalekoak dira, noski. Kaleak ere beraienak dira, eta onurak eskaintzen dizkio komunitateari, beste

animalia batzuk, hala nola saguak edo arratoiak, gure ingurunean hedatzea eragozten baitute.

Orain dela urte batzuk New Yorkeko hiriak kale katuen aldeko kanpaina bat abiarazi zuen, hauek kaletik kentzeko aurreko politikak hiria arratoiak betetzea baino ez baitzuen eragin. Hori dela eta, kale katuek hirira bueltan egotea nahi zuten, koloniak kudeatzen dituzten entitateek gainbegiratu, eta horrela arratoiak izurritea modu naturalean kontrolatu ahal izateko.

Txalotzekoa!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Langile kontrolpeko espazioak defendatu!

ALTSASUKO GAZTE ASANBLADA

34 urte beteko ditu Altsasuko Gaztetxeak 2024.urte honetan. Ehunka izan dira bertatik pasa diren pertsonak eta hamaika aurrera eramanez diren ekimenak. Esaterako, AHTaren aurkako dinamikak, presoen aldeko ekimenak, herriko adin ezberdinei bideratutako jarduerak, eta abar luze bat. Honegatik guztiagatik eta gazteria langileak haren eguneroko jarduna aurrera eramanez ahal izateko, ezinbestekoa du espazio hauen erabilera bermatzea eta borrokatzea.

Baina gaztetxe eta langile kontrolpeko espazioen aurkako ofentsiba geroz eta nabarmenagoa izaten ari da. Horren adibide dugu Goierriko zentro sozialista eta Zestoako Gaztetxea.

Zestoako kasuan gaztetxea elizaren izenean dago, eta bertatik kanporatuak izateko arriskuan daude. Epaiketa urtarrilaren 24an izango da. Kanporatzea edo desalojoa ekiditeko kanpaina abian jarri dute, apostasia kanpaina martxan jarri. Apostasia elizatik norberaren izena ezabatzea da, honek haiengan presioa sortzeko asmotan. Eta,

bide beretik, telefono deiak egin dira.

Beasainen kasuan, Sonepar multinazionalaren espazioa da. Soneparrekin adostasun batera iristen saiatu diren arren, ez dute onartu eta hustutze arriskuan dago; horregatik beste presio dinamika bat abian jarri dute.


Ofentsiba honi guztiari erantzuteko sortu zen Defentsa Komunitatea, Euskal Herri mailan dauden langile kontrolpeko espazioak defendatzeko eta hauen arteko saretzea eta elkartasuna ahalbidetzeko.



OBJEKTIBOTIK

Ilargia ezabatu nahi zuen hegazkina

Neguko zeruak beti izaten dira bereziak, baina joan den astean Bakaikuko Hiru haitzen gainean, irudi bitxia ikusi ahal izan genuen. Hegazkin pilotu batek, hegazkinak marrazten duen arrastoarekin ilargia zirriboratu nahi izan zuen, ez dakigu ikusi nahi ez zuelako izanen zen edo politegia zegoenez, jeloskor jarri zelako.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidar Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Txori hazle eta publiko ugari Olatziko topaketan

Aralar mendia Ornitologia Elkarteak antolatuta, Olatzagutiko frontoiak V. Txori Erakusketa eta Trukaketa hartu zuen igandean. Antolatzaileak pozik zeuden jendearen erantzunarekin, "erakusle gehien etorri den urtea dela uste dugu"

OLATZAGUTIA

Topaketaren antolakuntzaz Sergio Flores Barroso eta Raul Lopez olaztiarrak arduratu ziren. Prestaketa lanak garilean hasi zituzten. "Gobernuko abeltzaintza zuzendaritzari baimena eskatu genion. Dugun baldintza bakarra da topaketa aurreko hilabeteen ez dadila hegazti griperik edo horrelakorik egon, bestela bertan behera geldituko litzateke", azaldu du Floresek.

Frontoian hazle batenak ziren eta eraztuna zuten txoriak besterik ezin zuten sartu. Kanarioak, basa kanarioak, mistoak, agapornisak, ninfak... Denetarik txori txikiak ikusgai jarri zituzten topaketara gerturatu ziren 35 bat txori hazleek. Txorietako batzuk kantariak ziren, itxura ederrekoak besteak. Elkarteko albaitaria arduratu zen guztia egoki zegoela egiaztatzeaz.

Floresek nabarmendu zuenez, "txoriak jende askori gustatzen zaizkio. Urtean zehar jendeak galdetzen digu ea leihoan jartzeko txoriren bat salgai dugun. Zaletasun handia dago. Kantari ari den kanario batek etxea pozten du", azaldu zuen Floresek. "Leihoan izanzen duzun txori batek ez du lan handirik eskatzen, kaiola egunero pixka bat garbitzea, nahiko. Baina hazlea baza-



Frontoiko protagonistak txoriak izan ziren.

"TXORI ZALETASUN HANDIA DAGO. KANTARI ARI DEN KANARIO BATEK ETXEA POZTEN DU"

ra, garaia denean denbora behar da: goizean garbitu, jatekoa presatatu, arrautzak begiratu..."

Istripu baten ondorioz Floresek gaur egun ez du hegaztirik hazten, baina "denetarik" izan du. "Zalea naiz, hegaztiak asko

gustatzen zaizkit. Batekin eta bestearekin hasi, gustatzen hasi eta hezten hasi nintzen. Baina bi urte geldirik daramatzat". Hala ere topaketaren antolaketan lanean segitzen du. "Izan ere, kideek halako topaketak beharrezkoak dituzte txoriak trukatzeko, saltzeko, kentzeko. Halako ekitaldiak eginez hegazti asko mugitzen da".

Beharra

Txoriak trukatzeko beharrezkoa da hazleendako, arraza hobetzeko. Pandemiaren ondoren, txori hazleek deitu egin zieten topaketa antolatu behar zuten jakiteko. "Ciudad Realdik etorri da bat".

Bi olaztiarrak Langraiz Okako topaketara joanez hasi ziren. "Haiek antolatzeari utzi zioten. Ciudad Realen topaketa ezaguna egiten da. Iruñean bi egunetako bat egin zen, baina Olatzagutian izan dugunaren erdia ere ez zen izan". Floresek azaldu duenez, halako topaketa gero eta gutxiago daude. "Hazle askok bakarrik txapelketetarako txoriak hezten dituzte. Lehen 30 bikote hazten bazituzten gaur egun 15ekin ari dira. Onenak aukeratzen dituzte, gainontzekoak trukatzeko-edo".



Larunbatean etxez etxe eta igandean frontoian jaso zituzten jakiak.

Olatzagutitik Lesbosera, elkartasun jakiak

Zaporeak gobernuz kanpoko erakundearen aldeko jaki bilketa egin zuen Olatzagutiko Gazte Asanbladak

OLATZAGUTIA

Olatzagutiko Gazte Asanbladako (OGA) kideek azaldu dutenez, "asanblada batean atera zen jaki bilketa egiteko ideia. Hemendik kanpo elkartasuna zabaldu eta beste proiekturen batekin elkarlanean aritzea zen asmoa". Zaporeak gobernuz kanpoko erakundea (GKE) izan zen aipatutako proiektuetako bat. Haiekin harremanetan jarri ziren. "Haien proiektua azaldu ziguten, dituzten helburuak zein diren eta nola lan egiten duten azaldu ziguten".

Olaztiarrei horren berri kartelen eta sare sozialen bidez eman zieten. "Baina zabalkunderako bideak ez dira egokienak izan eta herritar asko ez dute jaki bilketa honen berri izan". Horregatik, larunbat goizeko plazako hitzordura OGAKo kide batzuk eta olaztiar gutxi batzuk gerturatu ziren laguntzera. "Talde txiki bat etxez etxe jasotzen

aritu zen. Eta, hala ere, olaztiarren erantzuna positiboa izan zen eta asko jaso genuen". Baina gutxi zirenez, ez zuten lortu herri guttiko etxeetatik pasatzea. Domeka goiz-eguerdian frontoitik mordo bat pasa ziren, bezperan jakiak prest ez zituztenak, etxean ez zeudenak edo ez zekitenak.

Bi egunetan jasotakoa Maisueña gaztetxean sailkatu zuten eta Zaporeak-eko kideak guztia jasotzera etorriko dira. Gainera, OGAK diru kopuru bat bideratuko du GKEk Lesbos uhartean duen sukaldean gehien behar diren produktuak erosteko. "Esaten digutenean eginen dugu erosketari", azaldu dute OGAKoek. Bestalde, ez dute baztertu etorkizunean ibarreko gainontzeko gazte asanbladekin batera Sakanan halako jaki bilketa bat egitea. Bitartean, aurten egingadako bilketarekin "oso pozik eta harro" daude OGAKoak.

Osasun langile palestinarrekin elkartasunez

Altsasuko osasun eskualdeko osasun langileek kontzentrazioa egin zuten Altsasuko osasun etxearen parean atzo. Su etenaren aldeko Nafarroako Osasungintza ekimenak deituta egin zuten bilkura, Gazan berehalako su eten iraunkorra eta Palestinan genozidioa bukatzea aldarrikatu zuten. Bilkuran nabarmendu zuten, "Historian lehen aldiz,

Palestinan osasun langileei ez zaie alboko kalte gisa eraso eginen, lehentasunezko helburu gisa baizik". Israelek Palestinan "ilbeltzaren 4rako 241 osasun profesional hil eta 283 zauritu zituen. Eta 121 anbulantzia eraso eta suntsitu dituzte lanean ari zirela. Bere delitu bakarra gaixoak zaintzea eta sendatzea". Bilkuran izan zirenek Iruñeko Antoniuttin ilbeltzaren 20an, larunbatean, 17:00etan eginen den mobilizazioan parte hartzera dei egin zuten.

107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN 10:00-12:00

ERREPIKAPENAK 14.00ETAN

ONLINE ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS



Pieza guztiak konpondu eta ordezkatzeko dituzte Bertakok, igogailuaren bizitza erabilgarria iritsi arte. BERTAKO

Bertako: igogailuetan gertukoa eta berezia

Igogailuen instalazio eta mantentze lanak egiten dituzte Bertako enpresak. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan. Duela 9 urtetik ari da zeregin horretan, enpresa moduan. Dena den, lantaldeak aurretik dihardu sektorean. Esperientzia handiko taldea da

Bertakok 2.700 igogailu baino gehiagoren mantentze lanak kudeatzen ditu Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Gehienbat, igogailu marka guztietako mantentze lanak egiten dituzte Bertakok. Eta pieza guztiak konpondu edo ordezkatzeko dituzte, igogailuaren bizitza erabilgarria amaitu arte.

Zerbitzu gardena

"Berezia da gure enpresa, sektoreko beste enpresa batzuekiko ezberdina", dio Bertakoko Iban Sanchezek, Bertako enpresako zuzendari komertzialak. "Bezeroari bideratutako enpresa da Bertako. Zerbitzu gardena eskaintzen dio jardueraren erdigunean dagoen bezeroari", dio; gardentasuna eskaintzen nahi du, "berez opakoa" den igogailuen sektorean. Horregatik, sorreran, sektorea ondo aztertu ostean, gustuko ez zituztenak albo ateratu eta zerbitzuak beti bezeroari, herritarrei, etxebizitza komunitateei, eskaintzen hasi ziren.

24 orduko benetako zerbitzua

Marka askotariko igogailuen mantentze lanak -batik bat-, igogailuen

instalazioa; edota zaharkituta dauden igogailuen ordez berriak jartzea. Horiek dira Bertakok egiten dituen lanak eta eskaintzen dituen zerbitzuak. Eta hori guztia, ustekabeko konponketa lanei uneoroko erantzuna emanda.

Bertakok bezeroekin -etxebizitza komunitateekin- sinatzen dituen kontratuetan, "24 orduko benetako mantentze zerbitzuak" eskaintzen ditu, urteko 365 egunetan. "Iraunkortasun klausulak edota bestelako zigorklausulak ezarri barik". Hau ez da ohikoa sektorean, Iban Sanchezek ustez. "Beste enpresa batzuek 24 orduko mantentze zerbitzuak eskaintzen baina, gero, benetan ez dute 24 orduetan zerbitzu ematen. Guk benetako 24 orduko zerbitzua eskaintzen dugu; izan asteburu edo ordu txiki". Horregatik dira Bertakoren bereizgarriak "gertutasuna, gardentasuna eta bezeroarekiko konpromisoa".

Sorreran enpresa txiki izatetik bere jardun eremuan enpresa esanguratsua izatera pasa da Bertako. 40 langilez osatutako lantaldea osatzen du Bertakok.

Prezioaren garrantzia

Prezioa da Bertakoren beste bereizgarri bat. Enpresa lehiakorra da, alde horretatik ere. Esaterako, orotariko zerbitzua eskaintzen duen enpresa batek BEZik gabe "150 eta 250 euro bitartean kobra zezakeen hileko gu hasi ginenean, duela 9 urte. Eta gu hasi ginen zerbitzu hori 100-115 eurotan eskaintzen. Eta gaur da eguna galtzen ditugun bezero gutxiak zerbitzu hori 65-75 eurotan jasotzen dutena". Sanchezek dio konpetentziako enpresek leporatu ziotela sorreran prezioak "botatzea" eta gaur dela eguna Bertakoren aurretik eskaintzen zuten prezioaren erdian dabilzana.

Euskarari garrantzia

Enpresa euskalduna eta euskaltzalea da Bertako. Ahalik eta zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditu. "Edozelan ere, onartzen dugu gure teknikari guztiak ez direla euskal hiztunak; batzuk badira; beste batzuk ez. Baina euskararekin konprometituta gaude eta ahal ditugun zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditugu. Adibide bat jartzearen, Tuteran aurrekontuak



Igogailuen mantentze lanak egiten dituzte Bertako enpresak. BERTAKO

Aplikazioa, bezeroen zerbitzura

Gaur egungo teknologiak darabiltza Bertako enpresak, eskaintzen duen zerbitzua eraginkorra izan dadin.

Bertakok eskuko telefonoetan erabiltzeko aplikazio bat ere badu. Honako hau ere bezeroei begira. Bezeroaren eta Bertakoren arteko

harremanetarako ez ezik, Bertakoko bezeroak beste gertuko gremio batzuekin

harremanetan jartzeko ere balio du aplikazioak. "Esaterako, etxebizitzaren komunitateko arduradunak arazo bat baldin badauka eta igeltsero, argiketari, arotz, iturgin edo bestelako gremioren baten premia badu, aplikazioak ahalbidetzen du haren inguruan jarduten duten gremio horiekin harremanetan jartzea", dio Sanchezek.



Bertako aplikazioa. BERTAKO

Lehetasunezko tratua

Hartara, bezeroei zerbitzu ona eskaintzeaz gain, tokiko negozioiei ere laguntzen die. Sanchezek esanetan, "larrialdi egoeretan dauden eta momentu batean konponbide azkarra behar duten herritarrei zerbitzua eskaintzen zaie, baina ez larrialdi prezioen truke".

Lehetasunezko tratua eskaintzen diete gremioek herritarrei, Bertakoren aplikazio horren bidez.

eta fakturak euskaraz eta gaztelaniaz egiten ditugu". Beste konpromiso batzuk ere baditu euskararekiko: Korrikaren babesle izatea edota euskarazko tokiko hedabideetan publizitatea egitea.

Gizartearekiko erantzukizuna

Euskararekiko ez ezik, bertako eta gertuko beste jarduerak batzuekiko ere badu erantzukizuna Bertakok, kirolaren edo kulturaren alorretan, esaterako. Tokikom, Arrasate Musikal, Hondarribia Arraun Taldea, Gaztedi Rugby edota Iker Vicente babesten ditu, besteak beste. Horretaz gain, kirolean eta kirol egokitan emakumearen parte hartzea sustatzen duten erakundeak ere babesten ditu, diruz lagunduz. "Halako erakundeetan atzean dauden pertsonak, orokorrean, izan ohi dira pertsona inplikatuak, diru aldetik ez horren aberats direnak, nahiz eta beste

aberastasun batzuk izan. Haien ondoan egotea gustuko dugu eta halako proiektuak diruz laguntzen ditugu", dio Iban Sanchezek.

Bertakoren zuzendari komertzialaren ustez, gainera, erantzukizun horrek Bertakoren marka indartzen laguntzen du. "Bertakoko bezeroa gure bezero izateaz harro egon dadila nahi dugu; zerbitzu ona eskaintzeaz gain eta haren igogailua matxuratzen den bakoitzean azkar erantzuten duen enpresa izateaz gain, beste balio batzuk, harekin bat datozenak, dituen enpresa garelako ikustea".

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

- Araba 945 712 822
 - Bizkaia 946 523 935
 - Gipuzkoa 943 903 450
 - Nafarroa 848 870 917
- www.bertako.eus



Mikel Razkin Larrazen liburu aurkezpenak aho zapore gozoa utzi zuen dorrobarren artean. UTZITAKOIA

Dorraoko irudi memoria

Mikel Razkin Galarrek 'Dorrao, Gue modua!' liburu aurkeztu zuen Itur-aldea elkarte betean abenduaren 30ean. "Halako gauza txikiekin herritarren kezka pizten dira, eta herria bizi egiten da; eta jendea bertan bizitzera animatuko da"

Alfredo Alvaro Igoa DORRAO

Mikel Razkin Galarrek bost urte eman ditu liburu ontzeko. "Norberak bere argazkiak etxeko kaxoi batean ditu, eta ez dira partekatzen. Argitara ateratzeko modu bat zen". Zituen argazkiak erabiliz, zuen asmoaren berri emateko bideoa egin zuen Razkinek eta herriko Whatsapp taldean zabaldu zuen. "Hasierako hilabeteetan etxe etxe argazki zaharrak jasotzen aritu nintzen. Hasiera batean irudi bilduma besterik ez nuen egin nahi, gaika ordenatuta. Horrela denok guztion argazkiak genituzke".

Jendea animatu zen, argazkiak ematen hasi zen. Jasotako argazki zaharrak bere etxera eraman, han digitalizatu eta berehala bueltatzen zituen. "Ama-ri argazkiak digitalizatzen erakutsi nion. Bitartean nik

irudiak antolatu eta bestelako lanak egiten nituen. Jendeak berarendako balio handia duten irudiak utzi zizkigun eta, horregatik, garrantzitsua zen lehenbailehen bueltatzea. Jendeak ikusi zuen arin ibiltzen nintzela, eta argazkiak ez zirela galtzen. Horrek animatu zituen, eta argazki pila sartu ziren".

Irudietan agertzen ziren pertsonak identifikatzen hasi ziren, baina "nahikoa zaila" zenez, utzi egin zuten. Argazkiak atalka eman ditu liburuan: nekazaritza, abeltzaintza... "Galtzen ari diren gauza asko dira. Gazteoi zati

"HASIERA BATEAN IRUDI BILDUMA BESTERIK EZ NUEN EGIN NAHI, GAIKA ORDENATUTA"

bat kontaktzen digute, eta horrela guztia batu egiten dugu. Horrela, gazteak bere herrian, bere zainetan jantzen ditugu". Jasotako irudiak XX. mende hasieratik gaur egunera artekoak dira. Ugariak festetako argazkiak dira. "Egungo hamar bat argazki ere sartu ditugu. Herrian gaur egun bizi den gazteria guztiaren isla utzi nahi nuen ere liburuan, zenbat eta urte gehiago pasa orduan eta balio handiago izanen dutelako argazki horiek. Niretako duela 100 urte jaiotakoak bezainbat garrantzia dute gaur egun jaiotakoek. Borobila ixteko modu bat da".

Idatziak

Razkinek aitortu duenez, argazki horiek dira liburuaren "bizkarrezurra". Bestalde, Razkinek aitona-amonei entzundakoak eta istorioen berri ematen zuten

apunteak gordeak zituen. "Liburu haiekin osa zitekeela jabetu nintzen". Liburuaren lehen zatia herriari buruzko Historiari buruzkoa da. "Bere garaian Vicente Razkinek herriari buruzko ikerketa egin zuen. Kasete txiki bat grabatu zuen herriko historiaren eta zenbait bitxikeriren eta tradizioren berri emanez. Hura transkribatu eta liburuan jaso dut".

Gainera, Dorraoko Kontzejua- ren nahikoa artxibo irakurriak zituen Migel Lizarragak, "informazio ugari eman zidan. Joan zen urtean hil zen, eta liburu ezagutu ez izanaren pena dut". Razkinek azaldu duenez, "gauzak kontatu" zizkioten dorrobar asko izan ziren ere. "Zerbait nahikoa informala da, ez dago historia ikerketarik, jendearen bizipenak baizik".

Toponimia, eta beste

Liburuan toki izenen zerrenda bat ere bada. "Pandemiako konfinamendu garaian herriko Whatsapp taldera jokoa bidaltzen nuen. Airetik ateratako herriko argazki baten gainean itsasontzien jolasaren moduko koadrikula bat jartzen nuen, ardatz batean letrak, bestean zenbakiak. Koordenatu baten arabera, han zeuden toponimoen berri emateko eskatu nuen. Jendeak dena eman zuen". Basoko ehun bat toponimo eskuratu zituen horrela. Liburuan jasoak gelditu dira etxe guztien izenak.

Bestetik, herrian egon diren zerbitzuen garapena ere azaldu dute liburuan: "aurreneko telefonoa zein etxetan zegoen, emagina zein zen, herrian egon ziren tabernak, noiz jarri ziren lehen-dabiziko telefonoa eta telebis-tak, herrira saltzera joaten ziren merkatariak zein ziren eta nondik zetozen, herrian zeuden merkatariak... Denetarik pixka bat". Tripotxen eta tripoten errezetak ere eman ditu Razkinek: "amonarenak herrian ospea bazutenez, haiek argitaratu ditut. Gazteek hor izanzen dute errezeta". Festetan abesten zen kanturen baten letra eta beste ere jasotzen du liburuak.

ATERATAKO DIRUA DORRAON SORTU BERRI DEN KULTUR ELKARTEARENDAKO IZANEN DA

Segida

Liburu egitea "erraza" egin zaio, "lana baino, nire zaletasuna izan da, tarteka aritu naiz", aitortu du Razkinek. "Ni ez naiz, inolaz ere letretakoa, ingeniari-za ikasketak ditut. Proiektu honetan tenkorkeriagatik sartu nintzen. Dorrao bezain txikiak ziren beste herrietan eduki mami-suko liburuak zituztela ikusten nuen, inbidia sentitu eta animatu nintzen". Hala ere, aitortu du "gogorra" izan dela. Liburuak pitteka edukiz hornitzen joan zen. "Baina sekula ez zen bukatzen, informazioa sartu eta sartu egon baita beti. Ikustearen ikusteaz, ez nuen sekula nahikoa kalitatezkoa sumatzen, ez nuen argitaratzeko garaia ikusten".

Liburu argazki, istorio eta eduki gehiagora "irekita" uzteko, liburuaren akaberan eduki gehigarriak atala dago. Han dagoen QR kodeak hodeian, Interneten, dagoen artxibo multimedia batera bideratzen du irakurlea. Sareko artxibo horretara materiala igo nahi duten dorrobarrek posta elektronikoko batera bidali behar dituzte beraien artxiboak eta Razkinek igoko du hodeira, denen eskura jartzeko. "Hasieran jende askok uste zezakeen bere argazkiak ez zuela balio, baina liburuan antzekoak ikusi zutenean, halako beste irudiren bat badituztela esan zidaten aurkezpenean bertan". Hori-ek jasotzen ari da orain Razkin: "liburuak duen aurkibide bera du sareko artxiboak. Ia-ia beste horrenbeste argazki atera daitezkeela uste dut. Benetako altxorrek daude".

Nafarroako Gobernuaren argitalpenerako dirulaguntza jaso du liburu publikatu ahal izateko. Liburuak 300 bat orri ditu, haietatik testua 40 bat orri dira, elebitan idatziak, eta gainontze-koak argazkiak dira. 200 ale argitaratu zituzten, 20 eurotan salgai jarri eta denak saldu dira. Bigarren argitalpen bat egiteko izen-abizenak jasotzen ari dira. "Ez dugu pentsatu liburu nonbaiten salgai jartzea".

Liburuaren salmentatik ateratako dirua Dorraon sortu berri den kultur elkartearendako izan da. Oraindik ez du izenik. "Bere helburua herriko bizitza animatzea da. Horretarako, gogo- badago, eta elkarte horrek jarduerak antolatuko ditu".

Harri borobila Urdiain erdian ikusgai

Udaletxe pareko errotonda txikian Irurita gaztelu inguruan opatutako harri borobildu bat jarri du udalak. Haren jatorriari buruzko bi hipotesi daude: gaztelua setiatzerakoan botatakoa da edo jentilek Saraben pilota jokoetan erabilitakoa da?

URDIAIN

Herriko etxearen pareko errotondan katapultatutako irudikatutako nahi duen egitura bat jarri du Urdiaingo Udalak. Eta haren muturrean, burdinazko egitura baten barruan, borobildutako harri bat dago. Katapultatutako hori iparralderantz begira dago, Irurita gaztelurantz hain zuzen ere.

David Oroz Alonso alkateak esan du orientazio hori propio eman diotela, harria inguru hartan opatutakoa baita. "Xabier Reparaz Estramina historialari arbizuarra gaztelu inguruan paseatzen zebilela, ohartu zen erdi ezkatututa harri borobil bat zegoela. Harria agerian utzi eta udalaren esku utzi zuen". Alkateak gaineratu duenez, "horrelako harriak aurretik ere aurkitu izan dira, baina askoz ere txikiagoak. Reparazek azaldu zigunez, harri txikiak botatzeko tramankuluak bazituzten. Baina setio batean tamaina horretako



Katapultatutako irudikatutako egituraren muturrean dago Iruritan opatutako harria.

harri bat botatzeko katapultatutako eta jende kuadrilla handiagoko behar zen". Orozek gaineratu duenez, "harriak alde batean kolpe baten arrastoa du".

Urdindarren artean zabaldu-tako kontakizunetan jentilek

presentzia handia dute. Antza, Irurita gaztelu azpian dagoen Sarabe ibarrean pilota jokoan aritzen ziren. Jatorria bata edo bestea izan, udalak bien berri labur ematen duen informazio panela jarriko du.

Patronatuak adinduen egoitzako bi zerbitzu hartzea aztertuko du

Zabaldu zenetik enpresak arduratu dira elikadura eta garbiketaz. Hala jarraituko dute urte batez

ALTSASU

Aita Barandiaran adinduen egoitzako patronatuak elikadura eta garbiketaz zerbitzuak zuzenean kudeatzeko aukera legalak eta ekonomikoak eta horien ondorioak aztertuko ditu. Azterlan hori aurtengo egiteko konpromisoa hartu zuen patronatuak abenduaren 21eko bileran. Azterlan eskutan, 2025era begira egoki jotzen diren erabakiak hartuko ditu patronatuak. Bitartean lan horiek urte baterako emateko administrazio prozesura martxan jarriko du patronatuak.

Gaur egun adinduen egoitzako elikadura eta garbiketaz zerbitzuen enpresa 2021etik ari da bertan lanean. Gehienez ere bost urterako kontratua eskuratu zuen. Baina elikadurako lehengaien prezioen gorakada dela eta enpresak garaiz jakinarazi zuen ez zuela kontratua beteko. Kontratu indarrean zenez, patronatuak lege ezin zuen prezioen errebasiorik egin, beraz, zerbitzua emateko deialdia egin zuen. 2021eko kontratuarekin alderatuta 47.442 euro (BEZa barne) gehiagoko eskaintza egin zuen

Patronatuak. Bitan deialdia egin eta bietan enpresa batek berak ere ez zuen proposamenik aurkeztu. Urte bakarreko deialdiarekin zer gertatzen den erabaki bitartean 2021ean kontratua eskuratu zuen enpresak jarraitzen du elikadura eta garbiketaz zerbitzuek arduratzen.

Bi zerbitzuek igo dute egoitzaren aurrekontua. Bestea, patronatuak langileei soldata %2 igo diela. Egoitzak 1.445.853,49 euroko aurrekontua du. Udalak 190.864,81 euroko ekarpena egin dio eta gobernuak 645.667,23 eurokoa. Azkenik, egoiliarrek 602.361,25 euro jartzea aurreikusi dute, bai itundu gabeko plazetan (kostu osoa ordaintzen dute), bai itundutako plazetan (gehienez 1.460,47 euro ordaintzen dituzte hilean, gobernuak haien ekarpenarekin aldea estaliz).



Herri Berritze planaren bidez Unanuko plaza berritu zen. ARTXIBOA

Inbertsioetarako Herri Berritze plana indarrean da

Udalak kontzeju bakoitzari inbertitzeko 60.000 euro emanen dizkio aurtengo

ERGOIENA

Ergoienako Udalaren aurtengo aurrekontuan 593.910 euroko sarrerak (2023an baino 80.300 euro gehiago) eta 592.650 euroko gastuak jaso dira (80.950 euro gehiago). Aurrekontuaren hazkunde horren atzean egitea aurreikusitako inbertsioak daude. Kapitulu horretan udalak 191.500 euro ditu. Udalak dirua du, baina kontzejuak dira esku-menak dituztenak, beraz, kontzejuetaren egitearen inbertsioak kudeatzeaz arduratuko da Ergoienako Udala.

Horretarako Herri Berritze plana sortu zuen Ergoienako Udalak 2021. urtean. Lizarragan, Dorraon eta Unanun zer inbertsio egin daitezkeen kontzeju bakoitzak erabakitzen du. Orduan bezala, aurtengo Ergoienako Udalak kontzeju bakoitzarendako 60.000 euro izanen ditu. Kontzejuen lanen administrazio

kudeaketa udalaren esku geldituko da. Bestetik, Unanuko Kontzejuak Beriainera joaten diren mendizaleendako aparkalekua egiteko dirulaguntza eskatu eta jaso du. Lanek 50.000 euroko aurrekontua dute, laguntza 35.000 eurokoa da eta gainontzekoa kontzejuak jarri beharko du. Inbertsio hori ere udalak kudeatuko du, eta, horrela itxiko da udalaren aurtengo aurrekontuko inbertsioen atala.

Bestetik, enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premia neurrien legeri jarraituz, Ergoienako Udalak zerbitzu anitzeko langileak kontratatze deialdia eginen du aurtengo. Prozedura hori egin ahal izateko, lehenik, ergoiena.com webgunean egoitza elektronikoa ezarria izan beharko du. Udalak hori horrela izateko hartu beharreko erabakia hartua du dagoeneko.

PORTUKO

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

KOLABORAZIOA

Eguraldi kontuak gurean, aurrekoen arabera

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Urte hasieran, Sakanako euskal hizkeretan egutegiarekin eta eguraldiarekin zerikusia daukaten esaera zaharren bildumatxo bat eskaini nuen hemen. Oraingoan, ikusita urte batetik bestera zer nolako aldaketak ari garen ezagutzen gurean ere eguraldiaren inguruan, gure aurrekoek honetaz baliatzen zuten hiztegia eta baita zenbait siniskeria ere azalduko ditut.

Ugari dira Sakanan barna gure aurrekoek baliaturiko izenak haize ezberdinak izendatu eta haien ezaugarriak azaltzeko. Ezagunenak, **iperra** (iparra), **egue/egua** (hegoa), **gaztela** (mendebaldekoa) eta **iruzkiaize** (ekialdekoa). Hala ere, horiek guztiek badituzte, edo izan dituzte gutxienez gurean beste izen batzuk edota azaldu beharreko zenbait xehetasun.

Iperra. *Iperraize* esaten zaio Sakanako herri gehienetan ("cierzo"). Lizarragan ere horrela, baina baita *iper antza*, leunagoa, eta *iper leño*, haize honek jasotako lainoa. Iparraldetik jotzen du *San Migelaize*-ak ere Arruazun.

Oso zorrotza da, hotz handiegia ekartzen du eta ez du elurrik egiten uzten. Urdiainen, *eguain mandatugilia* eta *alkaueteroa* esaten zioten, hego haizearen iragarle baitzen. *Iperrak*, *iper faltsu* izena ere hartzen du. Honek iparraldearen eta ipar-mendebaldearen artetik jotzen du, euritsua da eta ipar arrunta baino hotzagoa eta indartsuagoa da. *Iperraize* hau, eultzi garaian, udan, oso gogokoa zen, freskoa eta gozo-gozoa, uzta haizetzeko. Neguan, aldiz, euritsua.

Egue/a. *Egoaize* Sakana gurtian barna ("bochorno"), *eroaize* ere bai, esaera zahar bihurturik. Indar handia duenean ez du euririk egiten uzten eta txarra da labore edo zerealendako uda hasieran, baina ona uda amaieran eta udazken hasieran uzta jasotzerakoan. Haizeen artean, kalte gehien egiten duena dela esan daiteke: oinazea, gorpuzkera txarra edo hezurretako mina, kalte horien artean. Lo egitea ere oztopa dezake eta Burundan esaten zuten Santa Marina baselizaren aldetik jotzen zuela. Haurrengan ere eragina

omen du, hauek asaldatuz. Satrustegiren arabera (1969), urdiaindarrek esaten zuten Bakaikuko festek sargoria edo hegoaldeko haizea zekartela.

Gaztela. *Gaztelaize*, *Arabako aize* edo *Mendebala* ere esan izan zaio Sakanan ("castellano"). Euritsua zela zioten eta baita kazkabarra ekar zezakeela. Lizarragan zioten San Adrian baselizaren aldetik jotzen zutela haize honekin sortutako ekaitz askok. Urdiainen *gaztala* eta Bakaikun *gaztelaize* eta *arabaize* Ondarraren arabera.

Iruzkiaize. Eguzkia ateratzen den aldetik, Aralarko San Migel aldetik udan eta Beriaingo San Donato eta San Kaietano baselizaren aldetik neguan, jotzen duen haizea dugu hauxe eta oso hotza da ("*matacabras*"). Lizarragan, ohituta nonbait eguraldi hotzetara, haize freskoa bezala azaltzen dute.

Bestela ere, bada beste haize izen bat gehiago ere, **sorgiñaize**, egun oraindik Sakanan. Horrela jaso nuen *Sakanako Hiztegi Dialektologikoan*: "Haizea jira-biraka eta hautsa jasoaz dabilenean, sorgindurik balego bezala. ("*Viento arremolinado*"). Izagirrek Altsasun eta Ondarrak Bakaikun ere jaso zuten.

Lexiko aberatsa da adin handiko euskaldun sakandarrek baliatzen dutena eta ez horren adin handia dutenek, aldiz, ahaztua edo aldatua darabiltena. Eta normalean, ahanztura edo lexiko aldaketa horiexen errua, hizkuntza estandarri egotzen zaio, baina ez da beti horrela izan, ezen bertako euskal hiztunek baliatzen zutena ere, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an benedikapen guztiekin jasota baitago erabilgarri. Gainera, oraindik jatorrik ez bada, arrazoi gehiago erabili eta benedikapena jasotzeko.

Sakanako gazte euskaldun alfabetatu gehienek 'trumoi' eta 'tximista' izenak erabiltzen dituzte, haien arbaso euskaldunek **ostots** (Aranatz,



Arakil mendebaldea -ost(e) + (h)ots-), **ortots** (Arakil ekialdea -ort(ze) + (h)ots-), **jostai** (Burunda) eta **inēztura** (Aranatz, Arakil mendebaldea), **inūztura** (Arakil ekialdea), **oinaztura** (Burunda) esaten zutena.

Era berean, 'txirimiri' erabiltzen dute **langar** (Aranatz, Arakil mendebaldea, Burunda), **lankar** (Arakil ekialdea), **lanbro/lanbur** (Burunda) baliatu ordez. Badira, hala ere, beste zenbait aldagai, betiere euri kopuruaren arabera, hala nola **lauso** (Aranatz) oso fina edo kopuru gutxi-gutxikoa denean botatzen duen euria denean eta **jito iuri** (Urdiain), aldiz, bizia denean.

Beste hainbeste gertatzen da 'antzigar' izenarekin, Sakana osoan **lantxurde/lantxurda** erabilia denarekin eta lantzurda moduan benedikapena duena. Edota **izotz**, Sakana osoan baliatzen dena, horma, lei edo jela erabili beharrean.

Izen ezberdin ugari ditu Sakanako euskal hizkeretan 'ortzadar' edo 'ostadar' (*ortze/oste + adar*) izenak. Zabalduea, zalantzarik gabe, hasieran *Jangoikoaren jabego* genitibo osagaia daramana:

Jangoikoaren gerriko (Burunda, Aranatz),

Jungoikoaren gerriko banda (Uhartea Arakil),

Jangoikoaren baranda (Lizarraga) eta

Jaungoikoaren paxa

(Irañeta) Timoteo Beraza irintarra zenak esan zidan bezala. Bestela ere, Etxarri

Aranatzen eta Lakuntzan **ostrilleka** izena erabiltzen zen aspaldian eta bere osagaiak, seguruenik, *ost(e) + (eu)ri + leka* dira, hau da, euriak

zeruan uzten duen arrastoa adieraziko luke. Urdiainen **kostilajia** izena ere erabiltzen omen zen.

Antzeko zerbait gertatzen da urteko bost hilabeteren izenekin: **ilbeltz** (urtarril), **garagartzaro** (ekaina, garragarri bezala bedeinkaturik), **garil** (uztaila), **urri** (iraila) eta **lasteil** (urria)

Eguraldi aurrikuspenak direla eta Satrustegik (1969) jaso zion Lukas Zufiaurre urdiaindarri abenduko hilabeteetako meteorologia gogorraren bilakabidea adierazten duen esaera:

Abenduko elurra gailtzerua / Ilbeltzekua burniya / Otsailekoa egurra / Martxokua ura. Urdiaindarren esanetan, bestalde, maiatzeko lehen zazpi egunak, ondorengo zazpi hilabeteen eguraldi iragarle omen dira. Arruazun, berriz, abuztuko lehen hamabi egunek urteko hilabeteenak iragartzen dituzte, lehenak abuztua bera, bigarrenak **urria** (iraila) eta horrelaxe hurrenez hurren.

Noizbait ere, etxarriar zenbaiti diot entzuna Putterriko azpialdeko sakanean laino trinko eta txuria jartzen denean euria datorrela iragartzen duela. Urdiainen, Barga aldean hostoa ageritakoan, hiru egunetako euria heldu zela. Arruazun, maiatzeko San Migel egunean, hilaren 8an, Beriaingo Bargaren goiko muturrean, hostoek dagoeneko berdeturiko zuhaitzen bat ikus zitekeela.

Eta Juana Galartza urdiaindarrendako, maiatzeko lixiba izaten zen urteko hoberena, orduko urak gainerakoek baino hobeki zuritzen baitzuen arropa.

DUELA 25 URTE...



Uhartan etxeak egiten

Urtero etxeren bat egitetik, hiru enpresa aldi berean hainbat etxebizitza egitera pasa ziren Uhartea Arakilen. Herriaren Alde Zaharrean hemezortzi etxebizitza eraikitzen ari ziren eta beste 25 bat Itxesi auzoan. Eraikitzen ari ziren etxe gehienak familia bakarrak ziren. Etxeetako batzuk babes ofizialekoak ziren eta horrek gazte batzuei etxebizitzarako sarbidea erraztu zien. Uber-tearrek kezka zuten herriko populazioak behera egin zuelako.

FESTAK

LAKUNTZA

SAN SAASTIN FESTAK

ILBELTZAK 19 Ostirala

18:00 Txupinazoa eta Zarata txarangaren kalejira, eta danborrada txikia, plazan.
18:00-21:00 Haurtxokoa.
18:30 Txokolatada.
19:00 Piperopil txapelketa.
19:30 Buruhandiak.
20:00 *Road to Marte* Xabier Artiedaren eta Marteren musika eta antzerki ikuskizuna, plazan.
20:00 Auzatea.
20:30 Zezensuzkoa, plazan.
00:00 Danborrada, plazan.

ILBELTZAK 20 Larunbata

07:00 Aurora.

11:00 San Saastin ermitara erromeria, plazatik.
12:00 Meza, San Saastin ermitan.
Ondoren, auzatea ermitan.
Lakuntzako Pertza Elkarteak eskainita.
16:30-19:30 Puzgarriak, Behar Zana frontoian.
17:00-21:00 Haurtxokoa.
18:30 Elai Alai dantza taldearen emanaldia, plazan.
19:00 Alkate Dantza, plazan.
20:00 Auzatea.
20:00-22:00 Irtazar erromeria taldearekin dantzaldia, plazan.
20:30 Zezensuzkoa, plazan.
22:00 Gazte gunea: afari autogestionatua, musika eta fotokola.
23:00 Ganibet taldearen

kontzertua, Biltokin.
00:00-02:00 Irtazar erromeria taldearekin dantzaldia, plazan.

ILBELTZAK 21 Igandea

11:30 eta 13:00 *Haize Txikiak banda & Abesbatza* kontzertua, kultur etxean.
Sarrerak: 3 euro (Haize Berriak Bandarendako).
12:30 Lakuntzako erraldoiak, plazan.
13:00 Auzatea.
18:30 Irantzu Gonzalez dantza eskolako Lakuntzako dantzarien emanaldia, kultur etxean.
19:30 Buruhandiak, plazatik.
20:00 Zezensuzkoa, plazan.



ARTXIBOA

LAKUNTZA Jose Mari Arza Bergerandik eta Javier Andueza Artiedak festen hasierako etxajua piztuko dute ostiralean 18:00etan.

OLAZTI

SAN SEBASTIAN EGUNA

ILBELTZAK 20 Larunbata

12:00 Meza, San Sebastian ermitan.
13:00 Otordua.
San Sebastian auzoko bizilagunek prestatuta.

ETXARRI ARANATZ

IHOTEAK

ILBELTZAK 25 Osteguna

GIZAKUNDE
19:00 Txatarrak kalez kale ibiliko dira.

Sanantondarrak lau herritan elkartuko dira

Ilbeltzaren 17a, San Anton eguna, aurtan asteazkenarekin izan zen. Egun horretan Lakuntzako hilerri ondoko ermitan meza izan zen. San Anton animalien eta haiekin zerikusia duten lanbideen babeslea da. Sakanan dauden lau kofradiak abeltzainek eta mandazainek sortu zituzten. Ibarreko San Anton kofradiak ospakizuna asteburura atzeratu dute ospakizuna. Gosaldu ondoren bazkal garaira arteko tartea egingen dute.

Dorrao

San Anton kofradiako kideek 09:00etan dute hitzordua elizan. Hildako kofradiakideen aldeko mezaren ondoren Jose Migel Razkin Lizarraga priorearen etxera joanen dira. Han anakide hilen omenezko erresponstua errezatu eta Itur aldea elkartera joko dute. Han kofradiako ardurak berrituko dituzte, priorea eta haren laguntzaileak, mutilak, aukeratuko dituzte. Horrekin batera, kofradiaren kideen zerrenda eta diru kontuak egunean jarriko dituzte. Majo bazkaldu eta arratsa luzatuko zaie dorrobarrei.

Bakaiku

Sanantondarrak larunbatean, 12:30ean, dute hitzordua elizan, hildako anaien omenezko elizki-



Iturmendiko sanantondarrak. ARTXIBOA

zunean. Ondoren, elizan bertan, batzarra egingen dute. Aurreko akta irakurri (gaztelaniaz) eta kofradiaren gobernuaren inguruko gaiak aztertuko dituzte. Arduren banaketa ere egingen da. Xabier Goikoetxea-Ziardiak maiordomo izateari utziko dio eta lekukoa Pedro Joxe Zelaia Romeral, Pexeri, pasako dio. Belero berria aukeratu beharko dute. Batzarra despedituta, poteoan ibiliko dira, 14:30ean mahaira eseri arte. Bakarreko etxea elkartearen bazkaltzen hasi baino lehen joan zen urteko akta euskaraz irakurri eta onartuko dute. Ondoren majo bazkalduko dute. Gainera, 16:30etik aurrera kofradiakideek ospakizunean musika lagun izanen dute.

Iturmendi

San Anton kofradia domekan 10:30ean elizan elkartuko da, hildako anakideen aldeko meza iza-

nen baita. Hura despedituta, apaizaren etxean batzarra egingen dute. Kofradiaren kideen zerrenda egunean jarri eta diru kontuak lotuko dituzte. Aldi berean, kofradiaren ardurak berrituko dituzte: Javier Jungituk priorea izateari utzi eta ardura orain arteko banderadunari, Jesus Galarzari, pasako dio. Banderaren ardura zein izanen den erabaki beharko dute batzarrean. Haren ondoren, Aritzaga elkartearen anaidiaren bazkaria izanen da. Joan zen urteko batzarrean kofradiaren estandarte berritzea erabaki zuten eta domekan hura lekuko dela ariko dira mezan, batzarrean eta bazkarian.

Urdiain

San Anton kofradiako hildako kideen omenezko meza larunbat eguerdian egingen da. Elizkizunaren ondoren, apaizak herriko soroak eliz atetik bedeinkatu eta kofradiakideek San Antonen omenezko kanta abestuko dute. Tintinurri elkartearen gosalduek ondoren, batzarra egingen dute. Diru kontuak eta anakideen zerrenda egunean jarri ondoren, ardurak banatuko dituzte. Azken urtean maiordomoak Javier Aiestaran (banderaren arduradun) eta Jose Ramon Irigoien (diruzaina) izan dira, haien ordezkioak aukeratu ondoren, kofradiakideak Aitziber elkartearen bazkalduko dute. Giro ederrean egon ondoren, 18:00ak aldera maiordomoen etxera joanen dira kafea eta kopa hartzera.

SANSAASTINAK ZUZENEAN WWW.GUAIXE.EUS

URTARRILAREN 19AN 23:58ETAN

FESTAREN ESKUTIK



174 sakandar gehiago

Ibarrak 20.541 biztanle zituen joan zen urteko ilbeltzaren 1ean. Haietatik 10.561 gizonezkoak ziren eta 9.980 emakumezkoak. Ibarrak duen kilometro karratu bakoitzean 67,21 sakandar bizi gara

Alfredo Alvaro Igoa / Iune Trece Obeso SAKANA

Ibarrak laugarren urtez jarraian populazioan gora egin du, 2023aren hasieran 2022an baino 174 sakandar gehiago ginen, hau da, %0,85eko igoera izan zen biztanlerian. Aurreko hiru urtetan adina igo zen biztanleria urte bakar batean, 2020tik 2022ra 178 biztanletan igo baitzen populazioa Sakanan. Igoerak 2013ko populazio errekorretik, 20.809 sakandar, gertuago utzi gaitu, 268 pertsonara.

Generoari dagokionez, sakandarren %51,41 (10.561, 69 gehiago) gizonezkoak dira eta %48,59 (9.980, 105 gehiago) emakumezkoak. Azken horien kopuruak hamarren bat egin du gora, eta 10.000ko langaren atarian utzi du. Kopuru horretatik emakumezkoak 2013an jaitsi ziren.

Bestetik, emakumezko gehiago izateak bi generoen arteko aldea murriztu du eta orain 581 biztanlekoa da.

Udalerrika Ibarreko 15 udalerrietatik hamaikatan igo zen populazioa eta lautan jaitsi. Biztanleria hazkunde portzentajeari erreparatuta, bigarren urtez jarraian Arruazu nabarmendu da: %12,26ko hazkundera, 13 arbazuar berri, 10 gizonezko eta 3 emakumezko. Gainontzeko udalerrietan ez da halako igoera nabarmenik izan. Bi puntutik gorakoa, %2,07 (20 biztanle gehiago; 23 gizonezko gehiago eta 3 emakumezko gutxiago), izan zituen Arakilek.

Puntu bat baino gehiagoko igoerak bost udalerritan izan ziren: Uhartre Arakilen (%1,90; 15 gehiago, gizonezko bat gutxiago eta 16 emakumezko gehi-

go), Ergoienan (%1,88; 7 herritar gehiago; 2 gizonezko eta 5 emakumezko gehiago), Ziordian (%1,73; 6 gehiago, gizonezko 1 eta 5 emakumezko gehiago), Altsasun (%1,15; 86 herritar gehiago; 27 gizonezko eta 59 emakumezko gehiago) eta Lakuntzan (%1,09; 14 gehiago, 10 gizonezko eta 4 emakumezko gehiago).

Puntutik beherako hazkundera izan zuten lau udalerririk: Irurtzun (%0,74; 17 gehiago, gizonezko bat gutxiago eta 18 emakumezko gehiago), Etxarri Aranatz (%0,60; 15 gehiago, 13 gizonezko eta 2 emakumezko gehiago), Urdiain (%0,31; 2 gehiago, lau gizonezko gehiago eta bi emakumezko gutxiago) eta Arbizuk (%0,18; 2 emakumezko gehiago).


Gainontzeko lau herriek populazioa galdu dute. Bakaiku

nabarmetzen da, %3,38ko galarekin. Hau da, urte batean dozena bat biztanle galdu zituen, bost gizonezko eta zazpi emakumezko. Irañetan galera %1,2koa izan zen, bi gizonezko irintar gutxiago. Iturmendin %0,48koa izan zen populazio galera, bi gizonezko gutxiago. Azkenik, Olatzagutiak populazioaren %0,47 galdu zuen, zazpi olaztiar gutxiago, dozena bat gizonezko gutxiago eta bost emakumezko gehiago.

Aurreko urtean bezala, 2023an ere Arakilek, Lakuntzak eta Etxarri Aranatzek haien populazio errekorra lortu zuten, 987, 1.297 eta 2.521 biztanle hurrenez hurren. Irurtzunek eta Arbizuk ere bere populazio errekorra dute: 2.316 eta 1.126 biztanle. Beti ere 1996tik honako denbora tartea kontuan izanda. Bestetik, aipagarria da azken bi urtetan Ergoienak 14 irabazi dituela. Hiru urteko jaitsieren ondoren Uhartre Arakilek, atzera ere, 800 biztanleko langa gainditu du. Beste aldean Irañeta dago bosgarren urtez biztanleak galdu dituena. Iturmendik bigarren urtez kateatu du populazio galera.


Biztanleria banaketa eta dentsitatea Sakandarren %36,95 Altsasun bizi dira (0,11 puntu gehiago). Bi zifra horien artean Etxarri Aranatzek (%12,27; 0,3 gutxiago) eta Irurtzunek (%11,28; 0,01 gutxiago). Mila biztanletik gora duten Ola-

Sakanako biztanleriaren bilakaera




zagutian, Lakuntzan eta Arbizun sakandarren %7,22 (0,1 gutxiago), %6,31 (0,01 gehiago) eta %5,48 (0,04 gehiago) bizi dira hurrenez hurren. Sei udalerririk horiek Sakanako populazioaren %79,51 (16.333) dute, bost sakandarretatik lau herri horietan bizi dira.

Sakanako biztanleriaren bilakaera 1998-2023



ra 1998-2023



Ibarreko populazioaren gainontzeko %20,48 bederatzi udalerritan bizi da: Arakil (%4,81;0,06 gehiago), Uharteko Arakil (%3,92; 0,04 gehiago), Urdiain (%3,11; 0,01 gutxiago), Iturmendi (%2,03; 0,03 gutxiago), Ergoiena (%1,85; 0,02 gehiago), Bakaiku (%1,67; 0,07

gutxiago), Ziordia (%1,71; 0,01 gehiago), Irañeta (%0,80; 0,02 gutxiago) eta Arruazu (%0,58; 0,06 gehiago).


Udalerrien tamainaren arabera populazioaren dentsitatea aldatu egiten da. Azalera txikia duenez, Irurtzun da biztanleria

dentsitate handiena duen Sakana herria: 657,58 herritar kilometro karratuko. Atzetik ditu Altsasu 283,16 eta Lakuntza 117,56 biztanle km²-ko. 75 biztanle km²-ko baino gehiago hiru herrik dute: Arbizu 78,72; Etxarri Aranatz 76,35 eta Olatzagutia 75,60.

Zazpi udalerririk 20 eta 45 artean daude: Urdiain 42,30; Iturmendi 42,18; Bakaiku 29,32; Ziordia 24,46; Uharteko Arakil 21,24, Irañeta 19,65 eta Arruazu 20,76. Dentsitate txikiena duten bi udalerririk Arakil 18,85 eta Ergoiena 9,09 dira.

Nafarroa
Herrialdeak 2023ko hasieran 671.746 biztanle zituen, 7.629 nafar gehiago, hau da, %1,15eko hazkundea. Nafarren %50,56 (339.660) emakumezkoak ziren eta gainontzeko %49,44 (332.086) gizonezkoak. Sakandarrak nafarren %3,06 gara.

2023ko biztanleria Sakanan generoaren arabera



Txooooo!

JUANLUZENEAN
SAGARDOTEGIA

Irekiera
URTARRILAK 20

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

Ezagutu gure webgune berrial!

www.txartel.net

Azkarra, dinamikoa eta oso inliutiboa.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 19

IRURTZUN Hitzaldia.

El Salvador egoera sozial eta politikaren inguruko Francisco Valencia Diario Co Latinoren zuzendariaren hitzaldia.
17:00etan, Iratxo elkartearen.

ALTSASU Gazte agenda.

Gozamenez ekimenaren Tramankuluren escape rooma. Aurretik izena eman behar da.
17:30ean, Intxostiapuntan.

IZURDIA Kontzentrazioa.

AHTren aurrean badago alternatiba iSTOP sondeos TAVI elkarretaratzea, AHTren aurrean alternatiba plataformak deituta.
19:00etan, tren geltokian.

ALTSASU Kontzentrazioa.

AHTren aurrean badago alternatiba iSTOP sondeos TAVI elkarretaratzea, AHTren aurrean alternatiba plataformak deituta.
19:00etan, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Antzerkia.

Ramos y gramos Las Nenas Theatre konpainiaren antzeulanaren emanaldia. Doan.
19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Hitzaldia.

El Salvador egoera sozial eta politikaren inguruko Francisco Valencia Diario Co Latinoren zuzendariaren hitzaldia.
19:30ean, Gure Etxean.

LARUNBATA 20

ALTSASU Txapelketa.

ZORION AGURRAK



Intza eta Maren
Zorionak Intza eta Maren, ondo pasa zuen egunak lagun eta familia artean!

Magic The Gatering Gaztetxearen txapelketa.
09:30ean, gaztetxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Gozamenez ekimenaren Tramankuluren escape rooma. Aurretik izena eman behar da.
17:30ean, Intxostiapuntan.

IRURTZUN Txapelketa.

Ados Pilota emakume pilotari profesionalen elkartearen Binakako Txapelketa: Etxekolonea - Mendiburu / Aldaregia - O. R. Larramendi; Barrokak - Agirre / Ruiz de Infante - L. Galeano.
18:00etan, Bi Aizpe frontoian.

OLAZTI Antzerkia.

Yllana konpainiaren Passport antzeulanaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 21

IRURTZUN Mendi irteera.

Iratxo elkartearen mendi irteera: Mendaur. Arduraduna: Doris.
08:00etan, elkartearen.

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldeko BTT taldearen irteera: Apotako gainara 43 km-tako ibilbidea.
09:00etan, Zumalakarregi plazatik.

ARBIZU Txapelketa solidarioa.

Sahara aske baten alde padel txapelketa solidarioa: sariak, zozketak eta sorpreak. Sakana Padelek, VG Padelek eta ATTSF Mugarik Gabeko Langile eta Teknikarien Elkarteak antolatuta.
10:00etatik aurrera, Sakana Padelen (Utzubar industriagunea, 3).

ALTSASU Ikuskizuna.

D'Click konpainiaren Latas familiarteko zirko ikuskizuna.
17:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Ikuskizuna.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Yo, capitán gaurkotasunezko filma dokumentalaren emanaldia
Igandea 21: 19:30

El sur filmaren emanaldia, FilMOTEKA Nafarroan programaren barruan, Patxi Burrillo zinegileak eta arkitektoak aurkeztuta
Astelehena 22: 19:00

Fallen Leaves gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 25: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

La isla roja zineforum filmaren emanaldia
Igandea 21: 19:00

Acusado zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 25: 19:00

Adel keinu antzerkiko haurren ikuskizuna. Hiru urtetik gorako haurren ikuskizuna.
17:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 22

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

OSTIRALA 26

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza.
17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Ekitaldia.

Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrenaren ekitaldi ofiziala, instituzio ordezkariekin eta Eva Azpilikueta aktore altsasuarrarekin.
18:00etan, liburutegian.

ARBIZU Mustutze ekitaldia.

Olatzea hotelaren sagardotegiaren mustutzea: luntxa, musika eta txotxa.
19:00etan, Olatzea hotelean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertuak.

Arpaviejas eta Muga Zero taldeen kontzertuak, Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta. 6 euro.
22:00etan, gaztetxean.

OLAZTI Kontzertuak.

Mandroll eta Kota Zero taldeen eta herriko Dj baten kontzertuak, Olazti Gazte Asanbladak antolatuta.
23:00etan, Maisuenea gaztetxean.



ARTXIBOA

ALTSASU Zientzialari ilustratuak ADItch-en zientzialarien ilustrazioz osatutako erakusketa.

Urtarrilaren 28ra. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna dagoenean, eta igandetan 18:00etatik 20:00etara. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.



ARTXIBOA

ALTSASU Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrena.

Ospatu gurekin! dokumentu, objektu eta liburuen erakusketa.
11beltzaren 26tik otsailaren 29ra. Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara. Liburutegian.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Sakanako Garapen Agentzian Europako proiektuen ardura lanpostua betetzeko deialdia: Lanaldi osoa (32.190,36 euroko soldata gordinarekin) eta kontratu mugagabea. Unibertsitate ikasketak, euskara C1 maila titulu bidez aurkeztea edo frogatzea (euskara proba gaindituz), ingelesa ahoz eta idatziz B2 maila, gidabaimena eta ibilgailu propioa eta antzeko eginkizunetan bi urteko lan esperientzia izatea eskatzen da. Hautatutako pertsonaren eginkizuna Sakanako Plan Estrategikoan aurreikusitako jarduerak garatzea izango da (maila askotariko lkerketa eta Garapen programa aztertu ta zabaldu, proiektu estrategikoak kudeatu, SGAko lantalde teknikoaren koordinazioa, enpresen arteko elkarlana sustatu etab). Informazio gehiago nahi duenak SGA-rekin harremanetan jarri daiteke 647 864 239 telefonora deituz edo info@sakanagaratzen.com helbide elektronikora idatziz. Eskabideak Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako egoitzan aurkeztuz, haren egoitza elektronikokoan (labur.eus/IFuf) edo Sakanako Mankomunitatera gutuna bidalitz.

HIGIEZINAK

ALOKAGAI

Logela alokagai Altsasun: 350 euro gastuak barne. Informazio

gehiago 606 337 341 telefonon.

Apartamentua eta logela alokagai Irurtzunen ondoko herri txiki batean: Apartamentua 300 euro gehi gastuak eta logela 250 euro gehi gastuak. Euskaraz jakitea derrigorrezkoa da. Harremanetarako 653 732 179 telefonora deitu.

IRAKASKUNTZA

KLASEAK EMAN

LH ikasleendako klase partikularak: Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

IKASTAROAK

Oinarriko gaitasun digitalak doako ikastaroa Altsasun (lan egoera kontutan hartu gabe): Gaitasun digitalak prestatzeko aukerarik ez dutenen pertsonen zuzendua, urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra, bi orduetegian 15:30tik 17:30era edo 17:45etik 19:45era (plazak osatzen ez badira, ordutegi bakarria izango da) Altsasuko Enplegu Agentzian. Informazioa eta izen emateak 948 012 012 telefonon edo aventuradigital@navarra.es e-postan.

Langabetuendako IKT ikastaroa Altsasun: enplegarritasuna hobetzeko eta eten digitala murrizteko egunean egoteko gai ezberdinak landuko dituzte. Ikastaroa urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra izango da, 9:30etik

13:30era Altsasuko Enplegu agentzian. Izen ematea 948 012 012 telefonon.

OHARRAK

Lakuntzako Sansaastin festak direla eta: Lakuntzako herri gunea trafikora itxita egonen da 11beltzaren 19ko 18:00etatik hileren 21era. Autobus guztiak Sakanako Mankomunitatean geldituko dira.

Aita Mariren 2024ko lehen erreskate misioa finantzatzeko crowdfunding kanpaina martxan: Itsas Salbamendu Humanitarioak crowdfunding kanpaina hasi duela jakinarazi du Goteo plataformaren bitartez eta Fiere Banca Eticarekin lankidetzan. Informazio gehiago www.smh.eus web orrian. Parte hartzeko sartu ondoko link-ea: <https://www.goteo.org/project/barco-de-salvamento-aita-mari>.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilgunea Whatsapp aplikaziozko zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuitik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzi Whatsapp mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Marisa Arribas Urtasun

Beti egongo zara gure bihotzetan

Marta, Pedro, Rakel, Gorka, Nerea eta Amaieur
Altsasu

ESKELA




Angel Ochoa Mateo

Kide bikaina izan zara mendian gora eta behera. Arina izan bekizu orain lurra.



Sakanako Mendizaleak

ESKELA



Juan Cruz Bengoetxea Goikoetxea

Agur tío Juan Cruz!

Mila esker horrenbeste elkarri maite izanagatik, ondo izan eta gero arte.

Bengoetxea Fernandez de Garaialde eta Lazkano familia

ESKELA



Iñaki Larrion Azurmendi

Hurbil zintugun gertutasunean hurbil izanen zaitugu urrunean.

Gaur, ostirala, hilak 19 Altsasuko Gure Etxean auzoa eginen dugu hura agurtzeko arratsaldeko 16:30ean.

Altsasuko Udaleko zure lankideak

ESKELA




Pedro Vicente Razquin

Etxarri Aranatzan hil zen, 2024ko urtarrilaren 14an, 86 urte zituela

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertzen ditu


Etxekuek

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 19




Larunbata, 20



Igandea, 21



Astelehena, 22



JAIOTZAK

- Inhar Garmendia Urkia, abenduaren 27an Etxarri Aranatzan

HERIOTZAK

- Celestina Lizarraga Goikoetxea, ilbeltzaren 11n Urdiainen
- Jose Antonio Perez Pozueta, ilbeltzaren 12an Ziordian
- Antonia Lopez Ariztimuño, ilbeltzaren 12an Olaztin
- Angel Ochoa Mateo, ilbeltzaren 12an Altsasun
- Juan Cruz Bengoetxea Goikoetxea, ilbeltzaren 13an Altsasun.
- Pedro Vicente Razkin, ilbeltzaren 14an Etxarri Aranatzan
- Marisa Arribas Urtasun, ilbeltzaren 14an Altsasun
- Iñaki Larrion Azurmendi, ilbeltzaren 15ean, Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa bame dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 📍 @Grupolrache
 📺 Grupolrache
 🌐 www.tanatoriosirache.es

FUTBOLA EMAKUME PREFERENTEA

13. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Tudelano **2-5**

SAILKAPENA
EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA
1 Tudelano **30**
9 Altsasu **4**

HURRENGO JARDUNALDIA
ILBELTZAK 21, IGANDEA
12:45 Altsasu - Berriozar (Dantzaleku)

Altsasuk itxura ona eman zuen
Nahiz eta partida galdu, Altsasuk Tudelano liderrari ongi egin zion aurre. Etzi, Berriozar.

GIZON PREFERENTEA

16. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Altsasu - Mendi **1-2**

SAILKAPENA
PREFERENTEKO 1. MULTZOA
1 Burlades B **32**
11 Altsasu **24**

HURRENGO JARDUNALDIA
ILBELTZAK 20, LARUNBATA
18:30 Iruntxiki - Altsasu (Berain)

Altsasu, estropezuari buelta ematera
Altsasuk Mendi hartu zuen ilbeltzaren 13an Dantzalekun. Altsasuarrak aurreratu ziren, baina Mendik partidari buelta eman zion, garaipena lortuaz. Goi postuetatik gertu egoteko, Iruntxikiren kontra partida ona jokatu nahi dute altsasuarrak.

Zalduak Basati izango du aurkari
Elomendiko Txapelketan, sailkapenean laugarren den Arakilgo Zalduak Basati izango du aurkari Garesen.

GIZON ERREGIONALA

14. JARDUNALDIKO EMAITZA
Etxarri Aranatz - Beti Kozkor **4-2**
Lagun Artea - Arga Ibaia **6-2**

SAILKAPENA
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA
1 Mutilbera C **33**
2 Etxarri Aranatz **29**
6 Lagun Artea **22**

ILBELTZAK 20, LARUNBATA
15:45 Rotxapea B - Lagun Artea (El Irati)

ILBELTZAK 21, IGANDEA
16:00 Liceo Monjardin - Etxarri (Sanduzelai)

Etxarri, bigarren postua sendotzera
Etxarri Aranatzek Liceo Monjardinen kontra garaipenaren xendari jarraitu nahi du, bigarren postuari eusteko.

Lagun Artearen garaipen ederra
Lakuntzarrek 6 eta 2 irabazi zioten Arga Ibaia taldeari, animoak pizteko beharrezkoa zutena. Bihar Rotxapea dute aurkari.



Lesio larritik osatzen ari den Josu Etxeberria Rural Kutxa-Seguros RGA bere taldeko aurkezpenean egon zen. RURAL KUTXA

Txirrindularitzako atzerakontua hasi da

TXIRRINDULARITZA 2024 denboraldian tropel profesionalen lau txirrindulari sakandar izango ditugu, eta afizionatuetan bederatziz txirrindulari sakandar. Guztiak denboraldi berria behar bezala prestatzen ari dira eta hasteko prest daude

Maidar Betelu Ganboa SAKANA
Australiako Tour Down Under lasterketak 2024ko txirrindularitza denboraldi profesionala mustu du. Txirrindularitza taldeek prest dituzte denboraldi berriko eskudrak eta talde gehienak kontzentrazioa egin dituzte. Mediterraneo txirrindularien bilgune izaten ari da. 2024 denboraldia aldaketekin dator Sakanan.

Profesional sakandarrak
Imanol Erbitik txirrindularitza utzi du, eta Gorka Izagirre bere anaia Ionekin Cofidis talde frantziarrera joan denez, urte askoren ondoren Movistar Team taldean ez dugu sakandarrik

izango. Izagirrek Ormaiztegiko Ziklo-krosa irabazten mustu zuen Cofidisen maillot berria, eta denboraldi berrirako "oso gogotsu" dago. Aurrerapauso nabarmena eman duen txirrindularia Igor Arrieta da. Uharte arakildarrak bigarren mailako Kern Pharma UCI Pro Tour talde profesionaletik UCI World Tourrera egin du salto, maila gorenera, Tadej Pogacar lider duen UAE Emirates taldera. Ilusioz gainezka dago datorrenarekin.

Iker Mintegi izango da profesionalen mustuko den sakandar bakarra. Afizionatuen Laboral Kutxatik Jorge Azanza altsasuarrak zuzentzen duen Pro Tour mailako Euskaltel Euskadira

egin du salto altsasuarrak. Berriki Altean egon da kontzentratuta, denboraldia hasteko prest. Kategoria bereberek Rural Kutxa-Sguros RGA taldeak asteazkenean egin zuen aurkezpena Iruñean. Etxarri Aranatz bizi den Mulu Hailemichael etiopiarrek bertan segitzen du, eta baita Josu Etxeberriak ere. Etxeberriak istripu larria izan zuen entrenatzen ari zela auto bateko jo zuenean, eta iturmendiarrak errehabilitazio lan handia du aurretik. Hala ere, aurkezpen ekitaldian egon nahi izan zuen.

Afizionatuen dantza
Tropel amateur edo profesionalen txirrindularien dantza egon

da baita ere. Aimar Tadeo lakuntzarrek Finisher taldean jarraituko du bigarren urtez. Rural Kutxa-Alea talde afizionatuan, Mikel Uncilla etxarriarrak bigarren urtez segiko du, eta Martxel Etxeberriak hirugarren denboraldia egingo du. Jon Erdozia etxarriarrak, aldiz, txirrindularitza uztea erabaki du, eta aizkoran murgildu da.

Laboral Kutxan mugimendu handia egon da. Taldekide berria izango dute, Sakana Group-Aleatik afizionatuetara igo den Adrian Martinez lakuntzarra. Aldiz, Laboral Kutxan bost denboraldi egin dituen Ailetz Lasak ez du bertan tokirik, eta talde berria izango du aurten, Telcom. Zor-diarra oso gogotsu dago.

Gomur Cantabria Infinita taldean zebilen Jon Gil lakuntzarrek egitasmo berria du. Taldez aldatu du, eta Galiziako Supermercados Froiz taldeko kide berria izango da. "Oso ongi zaintzen naute eta pozik nago, denboraldi berria hasteko gogotsu".

Hostal Latorre Ederlan taldean jarraituko du, bestalde, Aitor Ondarra lakuntzarrek. Taldekide sakandar berria izango du aurten, Quesos Albeniz Burunda klubetik afizionatuen mailara igo den Iker Agudelo altsasuarra.

Azkenik, joan zen urtean Qoda Ciclismo Riojano taldean zebiltzan Ander Villalobos altsasuarrak eta Andoni Ocaña urdiaindarrak txirrindularitza utzi dute.

Nahia Imaz, negoziaketetan
Nahia Imaz altsasuarrak Sopela Women taldearekin mustu zuen maila amateur-ra joan zen urtean. Tamalez, taldea desagertu eta talderik gabe geratu zen Imaz. Beste talderen batekin dago harremanetan, eta aurki emango du bere talde berriaren berri.

Kintanaren urteko lehena

DISKO JAURTIKETA 2024ko lehen disko jaurtiketa ofiziala egin zuen ilbeltzaren 13an June Kintana Larraza bakaikuarrak, Santanderko kontrol ofizialean. 52,68 metrora jaurti zuen kilo bateko diskoa. Aurtengo helburua 60 metrora gerturatzea da, Europako Txapelketei begira. Martxoan Europako Jaurtiketa Luzeen Kopan parte hartuko du, Portugalen.




©JUANFERNAN

Binakako emozioa

PILOTA Binakako Txapelketa puri-purian dago. Hamaikagarren jardunaldiaren barruan igandean Ezkurdia-Tolosak eta Altuna-Martijak Tolosan jokatu du, lehenek 3 puntu eta bigarrenek 4 baitituzte. Jokoan dagoen puntua, beraz, ezinbestekoa da bizirauteko. Etxeberria-Zabaletak bart jokatu zuten, Elordi-Rezustaren kontra.



ASPE



Mikel Astiz, korrikalarien artean. J.BERGASA

Sakandarrak fin Nafarroako Kros Txapelketan

ATLETISMOA Mikel Astiz, Israel Arbizu eta Izaskun Beunza Top 10ean sailkatu ziren

Ilbeltzaren 14an Nafarroako Kros Txapelketa jokatu zen Lizarrako Los Llanos parkean. Proba absolutuan 58 atleta lehiatu ziren. Hotza izan zen protagonista, baina korrikalariak ez ziren kildu eta proba ikusgarria eskaini zuten.

Andoni Acebedo (Beste Iruña) izan zen azkarrena (34:07), Aitor Blancori 19 segundo (34:26) eta Imanol Kañamaresi 38 segundo (34:45) aterata. Hiru Herriko Mikel Astiz ihabardarrak lan ederra egin zuen eta seigarren sailkatu zen (35:37). Bere taldekide Israel Arbizu etxarriarra ere onenen artean iritsi zen helmugara, zortzigarren (36:08). Gainontzeko sakandarrek ez zuten meritu gutxiagorik izan. Ivan Sobredo (Hiru Herri) altsasuarra hamahirugarren sailkatu zen (36:59), Adur Senar (Beste Iruña) lakuntzarra hamalaugarren (37:26), eta bere taldekide eta anai Iraitz Senar hamazazpigarren (37:55). Isidro Asurabarrena (Ardoi) altsasuarra 46. postuan sartu zen (45:20). Emakumezkoetan Maitane Melero (Beste Iruña) izan zen txapelidun handia (39:06), Grupompleoko Alicia Carreraren (39:21) eta Ana Llorensen (39:59) aurretik. Izaskun Beunza (Beste Iruña) olaztiarra laugarren sartu zen (40:06).

Kirola, emakumeak elkartzeko bide aproposa

KIROLDEGIA Sakanako Mankomunitateak Emakumeak Kirolean Lagun Topaketak antolatu dituzte, lau kirol ekimenen bidez Sakanako emakumeak aniztasunean elkartu eta ongi pasatzeko. Lehen jarduera padela da, ilbeltzaren 28an

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Kirol, Berdintasun, Euskara eta Kulturartekotasun Zerbitzuek Emakumeak Kirolean Lagun Topaketak antolatu dituzte. Lau kirol topaketa edo ekitaldi dira, Sakanako emakumeak bildu, kirolaren bitartez ongi pasatu eta elkarren arteko harremana bulkatzeko helburuarekin antolatutakoak. "Emakumeak kirola egitera animatu nahi ditugu, kirol ezberdinak probatu ditzaten. Aldi berean, Sakanako emakumeak bildu nahi ditugu, euren aniztasunean elkartzeko eta bat eginez, bide batez, euskarara pixkanaka hurbil daitezten. Kirola bide aproposa da horretarako" azaldu zuen Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak ekimen berriaren aurkezpenean.

Euren interesak erantzunez

Azaroaren 5ean Sakanako Mankomunitateak emakumeei zuzendutako Padel Ate Irekien jardunaldia izan zen topaketa hauen abiapuntua. "Bertan parte hartu zuten emakumeei zer nolako interesak zituzten galdegenien, eta euren proposamenak jasota antolatu ditugu topaketa hauek" gaineratu zuen Izaskun Errazkin euskara teknikariak.



Rabeb Ridene, Bego Zestau, Izaskun Errazkin eta Amaia Gerrikagoitia aurkezpenean.

Lau jardunaldiak

Horrela, lau jardunaldi prestatu dira apirilaren 21era bitartean. Lehen ilbeltzaren 28an Arbizuko Sakana Padelaren antolatutako padel topaketa izango da. Otsailaren 25ean areto futbolaren txanda izango da, Olaztin, eta martxoaren 10ean Sakanan antolatutako Lilasterketarekin bat egitea proposatuko zaie emakumei. Azkenik, apirilaren 21ean mendi irteera egingo dute, Etxarri Aranaztik. Topaketa guztiak 10:30ean hasi eta 13:00ak arte luzatuko dira. Izena ematea

jarduera egunaren aurreko asteazkena baino lehen egin behar da Sakanako Mankomunitatean, edo Mank-eko Kirol Zerbitzuko eta Kulturartekotasun Zerbitzuko posta elektronikoen edo telefonoen bidez. Ekimena doakoa da.

Taxia eta zaintza

Hala behar dutenendako taxi zerbitzua eta haurren zaintza zerbitzua egonen da. "Azaroan antolatu genuen Padel Ate Irekietan taxi zerbitzua erabili behar izan zen, eta horregatik garran-

tzitsua iruditu zaigu atzera ere zerbitzu hau eskaini ahal izatea" nabarmendu zuen Bego Zestau Kulturartekotasun teknikariak. Halaber, ekimenak Sakanako hainbat herritan egin nahi izan dituzte, "Sakanan zehar ekimenak eskaintze aldera" gaineratu du Zestauk.

Topaketak bukatuta, balorazioa egingo dute eta orduan erabakiko dute udazkenean ekimenarekin jarraitzen duten eta zein topaketa antolatzen dituzten.

Lehen topaketa ilbeltzaren 28an denez, padel topaketa (Sakana Padel, Arbizu), ilbeltzaren 24ra arteko epea dago izena emateko. "Izena ematen duten emakumeen arabera bi pistak hartuko ditugu pistak". Ekimenarekin gogotsu daude teknikariak. "Kirola izan dadila emakumeak elkartzeko elementua, hurbilgunea".

Bitartekari berria

Mankomunitateko Kulturartekotasun Zerbitzuan Bego Zestau teknikariarekin batera Rabeb Ridene egingo du lan, hizkuntza eta kulturartekotasun bitartekari gisa. Ridene arabiera, frantsesa, euskara eta gaztelania menderatzen ditu, eta bere egiteko nagusia Sakanara etortzen diren familia berriei harrera egitea, eta haiek egin beharreko burokrasia kontuetan laguntzea izango da, itzulpen eta itzultzaile lanak egiten.

Lanak eginak, geldialdira

ARETO FUTBOLA Lehen mailako areto futbol txapelketak atseden hartuko du otsailaren 14ra arte, eta bi lagunarteko partida jokatu ditu Xotak. Talde berdea Kopako finalerdietan dago, bigarren mailako Mengibar bidean utzi eta gero. Partida horretarako harrobiko Oier Agirre zegoen deituta, baina iturmendiarrak ez zuen talde nagusian debutatu.





Alex Txikonen espedizioko Annapurna iparraldeko oinarritzko kanpamendua paraje ikusgarrian zegoen. UTZITAKOA

Lau egun Alex Txikonen Annapurnako kanpamenduan

MENDIA Joxepo Lizarraga eskalataleak aspaldiko laguna du Alex Txikon. Hark gonbidatuta, Madi alabarekin, Ion Lizarraga ilobarekin eta "Txibi" lagunarekin batera laukoteak Annapurnako ipar aldeko kanpamenduan esperientzia zirraragarria bizi du

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Pasa berri diren Eguberriak oso ezberdinak izan dira Unanun jaio eta Altsasun bizi den Joxepo Lizarraga Balda mendizale eta eskalatalearendako, oporrak Nepalen pasa dituelako, tartean Alex Txikonen neguko Annapurnako espedizioan bisitan. Madi alaba, Ion Lizarraga iloba eta Zaldibiko Zeberio "Txibi" laguna izan ditu bidaide esperientzia ahaztezin.

Alexen gonbidapena

Lizarragak ez zuen Himalaia ezagutzen. "Alex Txikon aspaldiko laguna dut, sarritan pasatzen da gure etxetik. Aspalditik esaten zidan noizbait bere espedizio bat ezagutzera joan beharra nuela. Abuztuan, eskalatzeko geundela, Annapurnara joatea eskatu zidan, iparraldeko aurpegian egongo zirela, eta mere-

zi zuela, inguruko ibilbideak inork gutxi egiten dituelako eta basatiak eta gogorrak direlako. Gogorra hitza entzun genuenean... bete-betean animatu ginen" dio Joxepo Lizarragak, irribarrez.

Alaba nagusienak, Madik, aitak mendiarekiko duen zaletasun berbera du. "Txiki-txikitatik Himalaiarekiko eta Nepalekiko erakarpent handia du". Jakina, Alexen gonbitera berehala animatu zen, baita Zaldibiko Zeberio "Txibi" laguna ere. Hasieran eurekin eskalatzeko duen lagun bat ere joatekoa zen, baina ezin

"ALEX TXIKONEK ANNAPURNARA JOATEA ESKATU ZIDAN, ETA ANIMATU GINEN"
JOXEPO LIZARRAGA

izan zuen, eta Ion Lizarraga iloba animatu zen. "Alex Annapurnako ipar aurpegian zegoenez, inguruko ibilbideak eta aukerak begiratzen hasi nintzen. Berak esan bezala, hara inolako trekking ibilbiderik ez zihoala ikusi nuen; horra bakarrik alpinistak zihoazela. Trekking ibilbideak hegoaldeko aurpegiko aldean egin ohi dira. Iparreko aldea izugarria iruditu zitzaidan, ederra, eta horrek asko erakarri ninduen". Aurreikuspena bete egin zen.

Laukoteak abenduaren 20an hartu zuen Nepaleko bidea, Katmandu hiriburura heltzeko. Gabon gaua eta Gabon eguna mendian eman zituzten, Bilboko bikote batekin batera egindako mendi ibilbide batean. Eta Alex Txikonen Annapurna iparraldeko espedizioa oinarritzko kanpamendura abenduaren 28an

iritsi ziren, eta abenduaren 31rako bertatik jaitsi ziren. Ilbeltzaren 5ean itzuli ziren.

Hotza

Alex Txikonen Annapurnako ipar aldeko oinarritzko kanpamendua "oso atsegina zen. Baina oso" nabarmendu du Lizarragak. "Agian beste oinarritzko kanpamendu batzuk ez dira horrela izango, baina hau zabalguner handi ederrean zegoen kokatuta. Nahiz eta neguan egon eta tenperaturak baxuak izan, kanpamenduan ez genuen elurrik, eta haizea bai, baina gutxi. Hotza bai, ordea. Hala ere, atsegina izan zen; gogorra baina atsegina".

Gaua zen okerrera. "Gauetan 0 azpitik 10-15 gradu izango genituen. Hotz handia. Hasieran Alexek utzitako lumazko jaka bereziekin sartzen ginen lo zura. Ur botila beroa ere sartzen genuen. Goizeko 7:00etatik 10:00ak arte zen tarterik okerrera. Zaku barruan egotea, ez zegoen besterik, eskuak ere ezin baitziren atera, hotzarengatik". Kanpamenduko martxa 10:00ak aldera hasten zen, "guztiak gosaltzera biltzen ginenean. 10:15etik aurrera eguzkia jotzen hasten zen, eta eguraldia zeharo aldatzen zen, onera. Ez zuen zerikusirik".

Oinarritzko kanpamenduko bizitza zuzenean bizi zuten Lizarragak eta bere taldekideek. "Alexen espedizioa eta gu kontuan hartuta, 11 pertsona ginen; eta sherpak. Elkarrekin gosalduek ondoren, buelta bat ematen genuen inguruetan. Trekking pare bat egin genituen, oso politak, eta ondoren elkarrekin biltzen ginen bazkaltzera. Arratsaldea ederra zen. Kartetara jokatzeko ohitura handia dute. 30 urte neramatzan kartetan jokatu gabe, eta han briskan ibili ginen jo eta su, giro ederrean".

Nepalen arroza da elikagai nagusia, baina oinarritzko kanpamendua "beste mundu bat" zen. "Denetatik zegoen, nik etxean ez dut elikagai biltzeko hori. Eduki ahal den guztia zuten; etxean baino hobeki jan dugu" dio Lizarragak.

"GAUA ZEN OKERRENA. TENPERATURAK 0 AZPITIK 10-15 GRADUKOAK ZIREN"
JOXEPO LIZARRAGA

Alex Txikon

Joxepo Lizarragaren taldeak zorte handia izan zuen, egun batean izan ezik Alex eurekin egunero egon zelako Annapurnako oinarritzko kanpamenduan egin zuten egonaldian. Lizarragak miresmen hitzak ditu alpinista bizkaitarrendako. "Alex eta bere taldekide Mattia Conte italiarra mendi goitik nola jaisten ziren, ikustekoa zen. Beste planeta batekoak dira".

Neguko espedizio baten gogortasuna "apartekoa" dela uste du Lizarragak. "Negu gorrian halako espedizioak egitera joateak erokeria puntu bat badu. Alexek joan zen urtean zortea izan zuen eta Manaslu igotzea lortu zuen, baina oso zaila da. Guztia ongi atera behar da: baldintza klimatikoak, sasoiak, unea... dena". Bertako baldintza klimatikoak oso aldakorak dira neguan. "Oinarritzko kanpamendura iritsi ginenean zerua urdin-urdin zegoen eta eguraldi aurreikuspena ona zen. Pentsatu nuen aurten ere Alexek lortuko zuela, Annapurnara igoko zela". Kanpamendura iritsi eta lau ordura, sekulako elur jauzia ikusi zuten. "Gure aurrean gertatu zen, justu Alexek igoeran gainditu behar zuen eremuan, lehen eta bigarren kanpamenduen artean. Eta handik bi ordura atzeko mendian ere sekulako elur jauzia gertatu zen. Eguraldi aurreikuspenak onak izan arren, hau da, eguraldi perfektua, egoera eta baldintzak di-da aldatzen dira".

Tenperaturarekin, antzekoa. Oinarritzko kanpamenduan gauetan 0 azpitik 10-15 graduko tenperaturak zeuden, baina lehen kanpamendura edo bigarrenera igotzean, tenperaturak 20 gradu hotzago izan daitezke. "Alexek hirugarren kanpamenduan pasa zuen azken gauan 0 azpitik 45 gradutan egongo zirela kalkulatu zuten. Eta orduko 100 kilometroko haize aldaketarekin. Pentsa. Eta zerua urdin zegoen. Horregatik, jendeak esaten duenean Alex Txikonek hirugarren kanpamendutik berriz oinarritzora jaitsi behar izan duela, tonu ironikoan... jende horrek ez du hitz egiten ari denaz ideiarik ere. Neguko espedizio batean oinarritzko kanpamenduan egotea, berez, gogorra da, goiko kanpamenduetakoa kontuan hartu gabe. Eta ia bi hilabete ematen dituzte espedizioan. Uste dut Alex abenduaren 16an iritsi

zela kanpamendura, eta atzo (ilbeltzak 15) jaitsi zen. Pentsa".

Alex Txikonek Annapurna ipar aldetik neguan igotzeko ahalegina amaitutzat eman zuen ilbeltzaren 13an. Besteak beste, aurretik hirugarren kanpamendura igotako materiala desagertu zela ohartu ziren gailurrerako ekinaldia egitera igo zirenean. Hango baldintza gogorrekin, edozer gerta daiteke, baina hori ere gertatzea, zoritxarra. "Zoritxarra? Ez dakit zer pentsa. Alex lur jota zegoen gertatutakoarekin, baina askoz ere gogorragoa litzateke beraiek hirugarren kanpamenduan egotea eta beraiek desagertzea, materiala baino. Mendi horiek oso gogorak dira".

Komunikazioa

Himalaiako espedizioaren barruan pisu handia du, egun, komunikazio lanak. Argazkiak atera, bideoak prestatu, sare sozialetan uanean uneko azalpenak eman, hainbat hizkuntzatan... lana ez da bukatzen. "Alexek egiten zuen lan hori guztia. Egunero hiruzpalau ordu zituen halakoetarako. Eguraldi iragarpenak begiratu, eguneroko antzekoa bete, sare sozialetarako testuak idatzi eta irudiak aukeratu... Idatzitako testuak Eneko-ri pasatzen zizkion, sukaldaria izateaz gain espedizioa bere eskuin eskua dena, hark zuzentzeko. Argazkiak eta irudiak Andres kamarak egiten zituen". Horretaz gain, espedizioa ohiko lanak: otorduak, guztia txukun mantendu, sherpei jarraipena egin eta bestelakoak. "Sherpak kide bat gehiago dira espedizioan. Tratua bikaina zen".

Espero baino askoz ere gehiago Himalaiako mendien handitasunaren aurrean, gizakion txikitetasuna oraindik ere nabarmenagoa da. "Pirinioetan Posets mendi indartsua da, baina Alpeetan beste dimentsio batzuk ikusten dituzu, handiagoak. Andean ere izana naiz, eta dimentsioak handitzen dira. Baina Himalaiakoa sekulakoa da. Annapurnako iparraldeko oinarriko kanpamenduan 4.400 metro ingurutan geunden, eta aurrez aurre beste 4.000 metro genituen, ipar horma ikusgarria. Sekulakoa izango zela espero nuen, baina espero nuena baino gehiago izan da. Ikaragarria. Dimentsio ikusgarri horietara ez gara egiten".

Laurondako esperientzia itzela izan da, baita gazteendako ere. "Ongi pasa dute. Euren abentura ez zen mendian hasi, bidaian baizik, Katmandu hiriburuan, errepideetan, mendietan... Esaterako, Annapurnako iparralderantz joateko 180 km egiteko 10 ordu behar izan genituen autobusez. Soilik mendizaleak doaz bertara, eta errepideak beldurgarriak ziren. Beldur gehiena errepideetan pasa nuen nik. Autobusak zaharrak ziren, eta, errepideak, mendian tailatutakoak. Oso txarrak. Eta pentsatzea bertan lurrikarak edo elur jauziak egon direla... honek eromen puntu bat badu".

Bidaiatik gauza asko gustatu zaizkio Lizarragari, baina argi du zer ez zaion "bat ere ez" gustatu: Katmandu hiriburua. "Jendetsua, erokeria hutsa, autoz betetakoa eta kutsadura izugarria duena. Lehen egunean lepoko braga sudurreraino igo behar izan genuen. Fundizio batean bezala sentitzen zinen". Nepal, ordea, "izugarri" gustatu zaio. "Gehienbat jendea. Kanpamenduan sherpekin egin genuen harremana bikaina izan zen. Jende oso ona da, beraiekin edonora joan zaitezke".

Joxepo Lizarragak argi du Nepalera itzuliko dela. "Orain dela 18-19 urte Alexekin eta Ochoa de Olzarekin Himalaiara joateko zorian egon nintzen, baina etxeko kontuengatik ezin izan nuen joan. Orain arte pentsatzen nuen bertaraino joatea, trekking bat egin eta behean geratzeko, horretarako ez zuela merezi. Baina han egonda, berriro diotsut badakidala bueltatuko naizela, bertako mendiengatik. Hango mendiak ikustea, eta neguan, zoragarria da". Mendizale ananurak aitortu duenez, Everest ondoan dagoen Ama Dablam (6.812 m) da bere betiko mendi kuttuna. "Etxean hiru koadro ditut. Piramide itxura du, eta igotzeko mendi zailenetako bat da, soka gailurreraino finkatu behar baita. Bertara ez hurbiltzea nahiago, tentaziorik ez izateko (kar-kar). Urte batzuk baditugu,

"KANPAMENDURA IRITSI ETA LAU ORDURA, SEKULAKO ELUR JAUZIA IKUSI GENUEN"
JOXEPO LIZARRAGA



Joxepo Lizarraga eta Madi alaba, Alex Txikonekin, oinarriko kanpamenduan. UTZITAKOIA



Alex Txikonen espedizioa kideekin. UTZITAKOIA



Sherpekin harreman bikaina izan zutela dio Joxepo Lizarragak. UTZITAKOIA

eta hankak lurrean. Ez gaude horretarako".

Alabari eta ilobari esperientzia asko gustatu zaie. "Iloba makina hutsa da. Mendia du gustuko, eskalatzea ez, ordea. Ziur noizbait bueltatuko dela. Eta Madik pila bat disfrutatuko du. Oinarriko kanpamenduan altuerako gaitza sufritu zuen, baina oxigenoa jarri zioten, eta gehien disfrutatuko zuena izan zen. Poz-pozik. Biek sekulako bizipenak bizi izan dituzte, eta flipatuta etorri dira". Izan ere, Himalaiako espedizio bat bertatik bizitzeak ez du preziorik. "Halako mendi puskak, kanpamenduko martxa, elur jauziak... sekulakoa izan da".

Espedizio masiboak

Alex Txikon lagun izatea Himalaiara itzultzeko atea da, "baina ez dakit Alex zenbat urte gehiago ibiliko den. Abenduan 42 urte bete zituen eta bigarren seme-alaba izango du aurki. Nahiz eta berak bezalako alpinistek burua beti Himalaian izan, nekatu antza sumatzen dut. Joan zen urtean, Manas-lutik jaisterakoan, neguan ez zela gehiago bueltatuko esan zuen. Ez du hitza bete, Annapurnan egon delako, baina udako espedizioek ez dute erakartzen. Ez du bere burua hor ikusten. Eta negukoak gogorrekiak dira".

Udako espedizioak jendetsuak bilakatu dira, asko komertzialak, horrek dakarren guztia-ekin: kutsadura, eta bestelakoak. "Ni ez naiz sekula halako batean egon, baina irudietan zaborrez betetako kanpamendua ikusten dira. Annapurnakoan, ordea, guztia garbi-garbi zegoen. Sherpa batek esan zigun berak Everesteko gailurreraino bezero bat eraman zuela, eta berak mugitu behar izan zizkiola hankak eta gorputza. Pentsa pertsona horrek mendiarekiko nolako zaletasuna duen". Bizitakoarekin kontentua dago laukotea. "Primeran pasatu dugu;sekulako esperientzia izan da". Etorriko dira beste batzuk.

"NOIZBAIT ITZULIKO GARA, ZIUR, BERTAKO MENDIENGATIK. ZORAGARRIAK DIRA"
JOXEPO LIZARRAGA



Joseba Alzueta, goian ezkerretik hasita hirugarrena, Sakana Padeleko erabiltzaileekin. UTZITAKOIA



Sakana Padel. UTZITAKOIA

"Txapelketarekin Sahara lagundu nahi dugu, egoera larria baita"

JOSEBA ALZUETA SOLA SAKANA PADEL

PADELA Igandean Sahara aske baten aldeko padel txapelketa solidarioa jokatu da Sakana Padelean (Arbizu) 10:00etan. Sariak, zozketak eta sorpresak iragarri dituzte

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Arbizuko Utzubar industrialdean kokatuta dagoen Sakana Padelek eta Attsf eta VG erakundeek Sahara aske baten aldeko padel txapelketa solidarioa antolatuta dute ilbeltzaren 21ean, igandean, egun osoan barna, hainbat babesleren laguntzarekin. Sakana Padeleko Joseba Alzueta dago ekimena koordinatzen.

Laburrean, zer da padela?

Txikia nintzela padela lehenengoz ikusi nuenean iruditu zitzaidana azalduko dizut: padela te-

nisa bezalakoa da, baina zelaia txikiagoa da, eta lau pareta dauka zelai eremu horretan. Palak ere bereziak dira, ezberdinak. Definizio horrekin geratu naiz. **Nola sortu zen padel txapelketa solidarioa antolatzeko ideia?**

"TXAPELKETA SOLIDARIOAK HARRERA ONA IZAN DU. BIKOTE IA GUZTIAK SAKANDARRAK DIRA"

Ni Attsf (Mugarik Gabeko Langile eta Teknikarien Elkartea) Gobernu Kanpoko Erakundeko kidea naiz. Beste ekimen batzuen artean gure taldeak Saharan proiektu bat du martxan, Garraio Basea izenekoa. Denok dakigun bezala Saharako kanpamenduen egoera oso larria da, laguntza handia behar dute, eta gai honen inguruan oso kontzientziatuta nago. Jon Echaiderekin batera Sakana Padela sortu genuenean Sahara nola lagundu hausnartu genuen, eta txapelketa solidario

bat antolatzea erabaki genuen. Eta horretan gaude. **Padel txapelketa parte hartu nahi dutenek aurretik eman behar dute izena, lekuak mugatuak direlako.** Bai, oso toki gutxi geratzen dira, ekimenak harrera ona izan duelako. Goizeko hamarretatik hasita, egun osoko ekimena izango da, baina hala ere egunak bere ordu mugak ditu, eta antolakuntzari begira ezin daiteke parte hartzaile kopuru amaigabea hartu.

Nola jokatu da padel txapelketa? Ligaxka izango da?

Izena ematea ixterakoan ikusiko dugu nola antolatzen dugun, parte hartuko duten bikoteen arabera izango baita, baina litekeena da hasieratik kanporaketa zuzenak izatea eta partidak hiru setetara jokatzera. Dena den, oraindik ez dugu formatua guztiz zehaztu.

Zer nolako bikoteek parte hartuko dute? Maila handiko txapelketa izango da?

Bikote ia guztiak edo denak sakandarrak direla uste dut. Duela urte bat hasi ginen Sakana Padelan. Bazegoen aurretik Iruñera, Gasteizera edo Beasainera padelera jokatzera zihoan jendea, baina jende gehiena zerotik hasi zen padelean Sakana Padel ireki genuenean. Epe labur honetan askok maila nahiko handia lortu dute. Txapelketa solidarioan bikote batzuk gizon-zukoek osatutakoak dira, eta beste batzuk mistoak, emakumeek eta gizonen osatutakoak.

Hortaz, jende gehiena zerotik hasi zen zuenean.

Bai, nik esango nuke ia jende gehiena hutsetik hasi zela. Sakana Padelean hainbat zerbitzu

"ATE IREKIAK IZANGO DIRA IGANDEAN, SAKANDAR GUZTIAK GONBIDATUTA DAUDE. POLITA IZANGO DA"

daude, eta tartean padel eskola dugu. Padel trebakuntza eskaintzen dugu, eta astero klaseak daude. Hor ikusten da ikasleen maila eta garapena, baina bereziki Sakana Padelen ikasturtean barna antolatzen dugun padel torneoan edo rankingean nabaritzen da hobekuntza hori. Oso polita da hobetu dutela ikustea, gehienak hutsetik hasi zirelako. **Sakana Padelen bezero bakoitzak bere aukeraketa egiten du. Batzuk prestakuntza ikastaroetara doaz, beste batzuek zuen txapelketa parte hartzen dute, gainontzeoak lagun kuadrillarekin nahi duten orduan joaten dira partidaren bat jokatzera... Zerbitzua, kartara.**

Bai, denetatik. Erabiltzaileek zenbait aukera dituzte. Bazkide izan daitezke, erabilpen bonuak edo txartelak eros ditzakete... norberak hautatzen du bere interesekoa. Erabiltzaileek txartela dute, eta egoitza Iruñean duen Nubapp enpresak garatutako Resasports aplikazioaren bidez pistak erreserbatzen dituzte, bakoitzak nahi duen edo interesatzen zaion orduan. 24 orduak ditu bezeroak aukeratzeko. Txartelarekin sartuko da, eta guztia automatizatuta dago. Oraingoz bi pista ditugu.

Sakana Padelek izan duen erantzunarekin kontentu zaudete?

Oraingoz bai, baina soilik urte bat daramagu martxan. Oraindik hobekuntzak edo aldaketak egin behar ditugu, aurrera segi. Prozesu bat da, ibilbide luzea, eta oraindik gauza asko daude egiteke.

Igandean, Sahara aske baten aldeko padel txapelketa solidarioa ikustera hurbil daiteke?

Jakina! Edonor hurbil daiteke, ez soilik padelean jokatu dutenak. Ate irekiak izango dira, eta sakandar guztiak gonbidatzen ditugu giroa ikustera, edo, besterik gabe, gure instalazioak ikustera. Oso polita izango da, egun bikaina pasako dugu. Txapelketa jokatzeko den bitartean ekitaldiak eta sorpresak egongo dira, Attsf GKE-ko kideak ekimenak antolatzen ari dira, eta ni guztia koordinatzen.

Hurbiltzen den jendeak Sahararen aldeko ekarpena egiteko aukera izango du?

Bai, ekarpenak jasoko dira. Bestalde, Gobernu Kanpoko Erakunde gisa Attsf erakundeak, esaterako, Bizum aktiboa martxan du dohaintzak jasotzeko. Laguntzeko beste modu bat da.



Gorka Belasko Euskal Herriko SketchCrawl taldeko kidea marrazten. UTZITAKOIA

Eneida C. M. eta E. R. B. ALTSASU

Marrazki maratoia bezala itzuli daiteke *SketchCrawl* delakoa, Gorka Belasko Euskal Herriko SketchCrawl taldeko kideak azaldu duenez, nahiz eta itzulpen literala "marrazketaren mozkorraldia" hitz jokoa dela azaldu. Jardunaldi oso bat marrazketari emana da, azken finean, marrazkilari taldeak proposatzen duena, eta Euskal Herriko SketchCrawl-en 82. topaketa Altsasun eginen dute ilbeltzaren 27an, larunbata. 10:00etan Foru plazaren kioskoan bilduko dira eta Espejo tabernan lehenengo talde argazkia eginen dute. Ondoren, plaza inguruan ibiliko dira haien marrazketa koaderno, arkatx eta koloreekin, besteak beste, eliza eta Altsasuko sustraiak Ulibarrenaren eskultura islatuz. Baratzeko bide, Iortia kultur guneko plazako tren, Burunda pilotalekua eta Elias Tañoren hormairudia izanen dira marrazteko izanen dituzten beste hainbat txoko. Eguerdian Arkangoan elkarretaratzea egin ondoren, Iortia kultur gunera joanen dira Haize Berriak bandaren entsegura eta Kaixo tabernan bazkaltzera elkartuko dira. Topaketa udaletxearen inguruak marrazten amaituko dute, eta azken argazkia eginen dute bertan.

Euskal Herriko SketchCrawl talde irekia, parte hartzailea, horizontala eta hierarkiarik gabekoa dela azaldu du Belaskok. Dinamika italiar batek sortu

Altsasuko txokoak 'sketchcrawla'-rien ikuspuntutik

Urtarrilaren 27an, larunbata, 82. Sketchcrawla Euskal Herria taldearen topaketa izanen da Altsasun. Marrazkilariak herriko hainbat txokotan ariko dira "ikusten dutena" marrazkietan islatzen. "Hausnarketa" tartea ere izanen dute

zuen Californian "halako buru-tazio baten ostean, eta nazioartean egiten den deialdi bat da: "Munduan zehar leku desberdinetan denok batera eta aldi berean marrazteko". Askotan datak "justu-justu" ez dutela bat egiten azaldu du Belaskok, baina mugimendua mundu mailakoa da. "Batuetan bertako ekitaldi edo jaialdiak baliatzen ditugu topaketak antolatzeko". Esaterako, Iruñeko sanferminetan egin izan ohi dituzte topaketak.

Euskal Herriko taldea 2012. urtean sortu zuten Iruñeko bi emakumek. Ordutik, hiru hila-

"TOPAKETETAN HORI LANTZEN DUGU: BEGIRADA; OSO IRUDI EZBERDINAK SORTZEN DIRA LEKU BEREAN"

betean behin elkartzen dira, urtaroeekin bat eginez: "Orain neguko izango da, gero apirilean udaberrikoa egingo dugu, udan beste bat eta urteko azkena urriaren amaieran udazkenekoa egingo dugu". Neguko Altsasun izango da, urtarrilaren 27an. Zergatik Altsasu? "Saiatzan gara herrialde guztietatik pasatzen, zoritxarrez falta zaigun bakarra Zuberua da, baina beste guztietan deialdiak egin ditugu". Edozeinek herri bat proposatu dezakeela azaldu du Belaskok. "Herri edo hiri horretan egun oso bat marrazten egoteko aukera egotea bilatzen dugu bakoitzi, baliabide nahikorik egotea. Ez dago ia beste araurik". Herri "oso txikietan" egon dira, Nafarroako Zubiri, Bizkaiko Ea edo Gipuzkoako Aramaio, esaterako, baita hiriburu guztietan ere, Maulen izan ezik. Altsasuren

kasuan marrazteko aukerak ematen ditu, "gai desberdinei buruz hitz egiteko aukera ematen du", eta ondo kokatuta dago, "zentralitatea du".

Altsasu

"Gaiak libreak eta irekiak dira. Deialdia egiten dugu, alde zurretik egitaraua prestatzen dugu eta proposamenak ematen ditugu. Elkartzen gara eta gero bakoitzak nahi duena marrazten du. Leku zehatz batean oso begirada desberdinak egon daitezke. Guk hori lantzen dugu: begirada. Nola begiratu leku

"ALTSASUN BEREZ BADAUDE INTERESGARRIAK DIREN LEKUAK ETA ESPAZIOAK"

bat, espazio bat, eta oso irudi desberdinak sortzen dira toki berean". Altsasun alde zaharra, eliza, Foru plaza, eskultura, tren, Iortia inguruan... "Badaude berez interesgarriak diren eraikinak, lekuak eta espazioak". Bestetik, "momenturen batean" taberna bat ere interesgune bihurtu daitekeela azaldu du marrazkilariak: "Izan daiteke kide batzuk zerbait hartzen ari direla eta hori marraztea. Edozein gauza eta edozein egoera izan daiteke marrazteko baliagarria". Belasko Altsasun egon zen "proposamenak egiteko", baina gero marrazkilariak berak ikusi ez zuena edo sumatu ez zuena proposatu dezakete ere. "Hori da horrelako deialdi batek daukan abantaila. Batuetan leku bat egunerokotasunean itsusia, kaxkara edo apurtuta dagoela eman dezake, baina marrazkilari batek horrekin oso irudi ona lor dezake".

"Bizitza" haien irudietan sartzea "aukera bat" dela azaldu du Belaskok. "Altsasura lagun batzuekin joan nintzen topagune delako, erdigune horretan dagoenez, Sakana inguruan elkartzen garelako. Bat-batean kalean dagoenarekin topatu ginen, musika, banda jotzen, eta orduan kalean edo herrian momentu horretan gertatzen dena harpatzen dugu". Aldez aurretik aurreikusia ez bazegoen ere. "Begi aurrean dagoena harpatzen dugu, gertatzen ari dena".

Topaketetan koadernoetan egiten dituzten marrazkiak "sareetara igotzea" proposatzen diete parte hartzaileei. Bakoitzak nahi duen sarean argitaratzen ditu, nahi duen traolarekin eta testuarekin. "Partekatzea gure ezaugarrietako bat da, eta egiten ditugun ekarpenak partekatzen ditugu". Taldeak ere blog bat du, Euskal Herria's SketchCrawl, "eta Altsasun landuko dugun gaietako bat hori izango da, nola landu bloga, nola egin biziagoa...". Sare sozialetan ere "boladak" daudela esan du Belaskok, "eta bat-batean badirudi blogak ez duela bizitzarik, eta orain dena reel-ak izan behar direla". Al-daketekin bat egiteko "komunikaziorako baliabideak" eguneratu behar dituztela azaldu du marrazkilariak. "Une honetan dugun helburuetako bat da. Taldea bizirik eta indartsu dago, baina batuetan eguneratzeko beharra dago".

Txorongoren doinuak ez dira inauterietan izanen

25 urtez Altsasuko herri inauterietan jo ondoren, Altsasuko txarangak aurten ez du segizioan parte hartuko. Udalaren erabakia izan da; beste talde batekin hitzarmena sinatuko du. Erabakiaren berri jasotzeko modua kritikatu dute kideek

Eneida C. M. eta E. R. B. ALTSASU

Txorongo Txarangak haren sare sozialetan bota zuen albistea: "Berri txarra: 25 urtez Altsasuko inauterietan jotzen aritu ondoren, aurten gure txarangak ez du joko Geroa Bairen erabaki aldebakar eta kazikeagatik; guri ere jakinarazi gabe". Hodei Alegre Txorongo Txarangako kideak azaldu duenez, Sakanako eta beste tokietako udalak eta herriak txaranga kontratatzeagatik eskerrak emateko publikazioa "lehenagotik" zuten idatzita: "Urte berriarekin argitaratu behar genuen, baina gainean berri hau etorri zitzaigun, ez genuela ez astearte ez piñata inauterietan parte hartuko". Publikazioa, beraz, baliatu behar zutela ikusi zuten: "Herri eta udal guztiei eskerrak eman nahi genizkien, baina Altsasuko Udalarari esker ona emateko ez dugu gogorik, ez digulako inolako arrazoirik eman". Elkarbanatu zituzten hiru publikazioetan "gure haserretik azaltzen genuen 25 urte gure txaranga bertan jotzen egon ondoren, nola egun batetik bestera, moztu egin den guztiz". Udalak ez zien jakinarazi ez zirela inauterietan egongo, "ez dugu jakin gure deitu arte".

GUAIXE eta BELEIXE Altsasuko Udalarekin harremanetan jarri dira, eta Altsasuko kultur teknikariak azaldu duenez, "azken urteetan Eztanda Txaranga sortu da, gehienak musika eskolan ikasleak izandakoak dira, eta udalak musika eskolaren barnean duen helburuetako bat da musika eskolan sortzen diren musikariak eta taldeak bultzatzea. Iortian entseatzen egon dira eta orain musika eskolara entseatzera joan dira, eta baliatu behar da beraiekin hitzarmen bat egiteko; udalari dagokion sustapen lanagatik eta laguntza bezala. Egitura bat egon behar da, eta inauterietan haiek joko dute".



Txorongo Txaranga 2022ko Altsasuko inauterietan. ARTXIBOA

"ERRU OSOA EDO KRITIKA ALTSASUKO UDALARI BOTATZEN DIOGU" TXORONGO TXARANGA

Alegrek azaldu duenez, Txorongok ez zuen udalarekin hitzarmenik: "baina gure ustez 25 urte inauterietan jo ondoren eta batzordeak dagoeneko gurekin hurrengo urtean hau eta beste hau egin behar dugu hitz egin ondoren, ulertzen da egongo garela". Egun batetik bestera hartutako erabakia izan dela kritikatu du musikariak.

"Ezin zaio errurik bota etorriko den txarangari, inolaz ere. Errua ez da beraiena. Erru osoa edo kritika botatzen diogu udalari. Kultur teknikariari ere, baina gehienbat Geroa Baiko kultur zinegotziari". Kultura batzordearen presidentea Peio Jimenez Geroa Baiko zinegotzia da. "Guk dakigula beraien barne kultura bileretan ez da gai honi buruz hitz egin eta ez da gai honi buruz ezer jakin, orduan, ez da ongi jakin nondik datorren". Udalare-

kin harreman zuzena zutela esan du, hau da, kultur teknikariarekin ez dutela inoiz hartu emanik izan.

Formak

Urte berrian sartuta Txorongo Txarangako kideek ikusten zuten udalak ez ziela aurrekonturik eskatu ezta inauterietan jotzeko prest zeuden ere galde-tu. "Publikazioak publikatu baino egun bat lehenago txarangako kide batek kultura zinegotzia deitu zuen eta berak esan zion ez genuela joko, gure ustez, eskuak garbituz ez zuelako inolako arrazoirik eman eta erantzuna nahiko ambigua izan zen". Beraiek deitu behar izan zuten ez zutela joko jakiteko.

"25 urte inauterietan egon ondoren, euripean, elurrarekin eta abarrekin, eta herriarendako urtero elkarteekin elkarlanean Aita Barandiaran egoitzan eta Josefina Klinikian jotzen dugu, Gazte Asanbladak pandemiako jai arraro horietan jotzeko esan zigun eta aurrekontua txikia izan arren, herriko festak zirenez eta herriko jendea zenez atera ginen". Enpatia falta ez dutela ulertzen eta horregatik haserre daudela esan du Alegrek.

"Bideojokoa aurrera eramateko gogoa dugu"

MAITE MARTINEZ MARQUEZ ARTE ZUZENDARIA

Arte zuzendaritza masterra ikasten ari zela, 'Little Keepers' bideojokoaren demoaren sorreran parte hartzeko aukera izan zuen alsasuarrak. Proiektuak bi sari irabazi ditu

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Iturruma institutuan arte batxilergoa egiten ari zela, ikus-entzunezkoen mundua ezagutu zuen Maite Martinez Marquez alsasuarrak, Tomas irakaslearen bidez. Argazkilaritza, bideogintza, edizioa eta abar gustatzen zitzaiola ikusi zuen, eta horrek bultzatuta Ikus-entzunezko komunikazioa gradua ikastea erabaki zuen. Amaitu ondoren, trebatzen jarraitu zuen eta Arte zuzendaritza masterra egitera joan zen Madrilera. Bertan zegoela bideojoko baten sorreraren proiektuan parte hartzeko aukera izan zuen, eta orain beste bideojoko bat garatzen ari dira. **Zertan datza arte zuzendaritza?** Proiektu batean koherentzia eta osotasun bat bilatzen du arte zuzendariak. Diseinu grafikoa eta gehiago ere bada; esaterako, publizitate kanpaina egiteko orduan zer kolore, tipografia eta abar behar diren osotasuna lortzeko. **Nola eman zenuen ikus-entzunezkoetatik artera saltoa?**

Badirudi bi mundu guztiz desberdinak direla, baina ikus-entzunezko komunikazioa graduan diseinu grafikoa irakasgaia egin genuen ere. Azken finean, artea

da. Zineman grabatzea eta nahikoa dela dirudi; eta ez. Badago kolorea, zuzendaritza artistikoa... Elkarrekin doazen bi gauza dira. **Bideojoko baten garapenean parte hartu duzu. Nola sortu zen aukera?** Masterra Voxel eskolan egin nuen, eta masterra Complutense unibertsitatea eskola pribatu batean egiten dute, eta eskola horretan master gehiago daude: bideojokoaren sorkuntza, pertsonaien sorkuntza, *concept art* eta abar. Ikasketa horietan, master bakoitzeko bi edo hiru pertsona elkartu behar dira Master Amaierako Lan amankomun bat egiteko: bideojoko baten demoa egin behar zuten ikasturte amaierako. Gure masterrean ez eta ez du horrekin zerikusirik, baina logotipoa egiteko, triptikoak, bideojokoan agertzen diren botoiak eta abar sortzeko norbait behar zuten eta niri proposatu zidaten. Ekoiztetxe horrekin aurrera jarraitu dugu, eta lanean jarraitzen dugu; Atabey Creations. Boluntarioak gara denak. **Eta nola da bideojoko bat sortzea?** Ez da erraza, gainera kontuan izanda ez dela berez ordaindutako lan bat, baizik MAL bat dela. Jendea sartzen da, baina



Maite Martinez Marquez arte zuzendari altsasuarra.

ez guztiz. Nire kasuan ez nintzen narratiban edo jokoan asko sartu, baina azkenean diseinukook badugu begi hori pantailan zerk funtzionatzen duen eta zerk ez ikusteko. Orduan, adibidez, jokoan materialak sortzen direnean halo bat sartzea egokia zela uste genuen, jokalaria ez dakielako zer gertatzen ari den. Guk gauza horiek ikusten ditugu. Gero gehienetan erantzuna "ezin da hori egin" izaten zen. Zaila izan da, baina oso gustura aritu naiz. **Zenbat denbora egon zarete proiektuan lanean?**

Irailetik uztailea edo abuztura arte. Bakarrrik demoa atera dugu. Joko honekin bukatu dugu eta Steam-en deskarga daiteke, doan; probatu daiteke, bi pertsona behar dira jokatzeko. Orain beste bideojoko batean lanean ari gara, modu berdinean. Narratiba oso antzekoa izango da; gauza batzuk mantenduko dira eta beste batzuk

oso desberdinak izango dira. Bideojoko luze bat egin nahi dugu orain.

Zer kontaktatzen du bideojokoak?

Little Keepers bideojokoan, lehenengoan, bi haur dira, Oli eta Dalia eta bere ama botanikaria da. Landareekin esperimentuak egiten hasten da eta esperimentuekin eta klima aldaketarekin landareak gaiztotzen dira, maltzurak bihurtzen dira. Ama desagertzen da. Bi haurrak pertsonaia nagusiak dira eta jokalaria erabaki behar du norekin jokatu. Pantailaren erdian etxea dago eta materialak jaso behar dituzu dorretxoak egiteko etxea-

"DATORREN URTERAKO INAUERIEKAKO DOKUMENTALA EGITEA ESPERO DUGU"

ren inguruan, etxea defendatzeko eta landare gaizto horiek etxean ez sartzeko eta dena ez txikitzeko.

Eta orain egiten ari zaretena nolabait horren garapena da?

Pertsonaiek ez dute izen berdina izango, baina istorioa nahiko antzekoa izango da. Orain naturarekin konexio gehiagorekin egingo dugu. Arerio nagusia Yuki izango da, Amalurra, eta, beraz, gaizkile nagusia amalurra izango da. Mezua izango da natura zaindu behar dugula, bestela gure kontrari jarriko dela.

Zuen lana pertsonaiak eta mundua diseinatzea da, ezta?

Bai, guztien artean erabakitzen dugu pertsonaiak eta mundua nolakoak izango diren, eta lan hori garatzea *concept art* departamentura dagokio. Diseinukoak marketin departamentuan gaude gehienbat, eta gure iritzia oso garrantzitsua da gero jokoak saldu behar dugunez zerk funtzionatzen duen eta zerk ez, zer den ona eta zer ez esaten dugu. Estetika bat ematen diogu.

Proiektuak sariak irabazi ditu.

Bi sari irabazi ditu: Guerrilla Game Festivalean ikasleendako eta bideojoko indidendako sariak dira eta bertan bigarren saria irabazi genuen, eta horri esker Gala Play Station Talents-era izendatu zuten eta bertan Konpromiso saria jaso genuen. Play Station eta ONCeren artean ematen duten sari bat da eta epaimahaiaren iritziz gure jokoak kutsaduraren eta klima aldaketaren primerako islada egiten du; horregatik irabazi genuen lehenengo saria. Esperientzia oso ona eta arraroa izan zen. Bat-batean deitu zidaten Madrileran joan behar nintzela Cines Callaon alfonbra urdinatik pasa behar ginelako. Altsasun nengoen dagoeneko, lanean, eta Madrileran itzuli behar izan nintzen, eta Cines Callaora, gainera, oso garrantzitsua dela. Oso ongi pasa genuen, bertan mago oso ospetsu bat egon zen, Play Stationeko oso jende garrantzitsuek hitzaldiak eman zituzten. Bideojoko oso onak zeuden izendatuta.

Horrek proiektua aurrera eramateko gogoia emanen dizue.

Produktoran hogeit hamar pertsona hasi ginen, gehienez, eta orain marketin departamentuan hamar pertsona gara. Proiektu osoan 30 pertsona baino gehiago gaude. Proiektu txiki bat da, baina nahiko jendea dago lanean eta jendeak

gogoia dauka zerbait garrantzitsua egiteko. Astero elkartzen gara, marketin asteazkenean, esaterako, eta astean zehar ekoizleek mezu bat bidaltzen digute proiektua zein prozesutan dagoen azaltzeko eta sektore bakoitzaren lanaren berri emateko; esaterako, marketinek neguko egutegia egin du... Jokoa egiteko ez dugu dirurik behar, boluntarioak gara, baina bukatuta dagoenean gure intentzioa enpresetara saltzea da, eta, bestela, Steam bidez saldu.

Espero zenuen bideojokoan munduan amaitzea?

Dudan esperientziagatik eta egin nuen masterragatik ez nuen espero bideojoko batean egotea, baina egia da txikitatik anaiarekin jokatu izan dudala: Play Station, Nintendo... Gustukoak izan ditut bideojokoak eta masterreko lagunak proiektuan sartzea proposatu

zidanean oso pozik esan nuen baietz. Orain mundu hori asko gustatzen zait eta barrutik ezagutzen ari naiz, gainera, marketinetik. Zinemaren eta bideojokoan munduak antzekoak dira, narratibio bat dago, mundu bat, pertsonaia... Agian bideojokoena zailagoa da dena sortu behar delako. **Etorkizunerako proiektu gehiago dituzu?**

Momentu honetan bideojokoan sartuta nago, baina beste proiektu batzuk lantzea nahi dut. Datorren urterako daukagun proiektu bat Altsasuko inauterietako dokumental bat egitea da, motza, pertsonaiak aurkezteko. Aste honetan egin nahi genuen, baina ez dugu kamerarik lortu eta datorren urterako uztea erabaki dugu. Beraz, datorren urtean Altsasuko inauterietako dokumentala izatea espero dugu.



BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Kontsumismoa





2024ko Lakuntzako kinto gehienak Lakuntzako Pertza egunean. UTZITAKOA

"Emozioa sentitzen dugu dantza herriari erakusten"

Lakuntzako 28 kinto eta kinto gaztek 'Alkate dantza' eginen dute bihar, ilbeltzak 20, San Saastin egunean. Maider Miranda Martinez, Maddi Gastaminza Betelu, Arhane Zubeldia Etxanobe eta Ane Arraiza Ondarra kintoak prestaketa lanetan aritu dira

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

1 Nortzuk zarete kinto Lakuntzan?

Kintoak 18 urterekin egiten dira, aurten 2006ko kintakoak direnak. Kinto gazteek ere parte hartzen dute, 16 eta 17 urte dituztenek, 2007. urtean jaiotakoak. Guztira 28 kinto gara, kintoak eta aurrekintoak kontuan hartuta.

2 Nola antolatzen zarete?

Kintoak elkartzen gara eta dena nola antolatuko dugun planteatzen dugu; plangintza bat egiten dugu. Lakuntzako festetan, Sansaastinetan, *Alkate dantza* dantzatzeko dugu eta aurreko bi astetan prestatzen aritu gara. Kintoak eta aurrekintoak

elkartu gara dantzak prestatzeko.

3 San Saastin eguna, ilbeltzak 20, egun berezia da, beraz. Zergatik dantzatzeko dute kintoek Alkate dantza?

Txikitatik ikusi dugun zerbait da, orduan, ohitura da. Ez dakigu noiztik egiten den.

4 Nolako da dantza?

Lehendabizi mutiko bat hasten da *Ezpata dantza* egiten eta gero neskek sartzen dira. Jotak eta hori dena dantzatzeko dira ondoren. Kinto gazte mutiko batek eta kinto neska batek egiten dute dantza.

5 Eta nola erabakitzen duzue nork dantzatzeko duen?

Zozketa egiten dugu. Mutila kinto gazte bat izan ohi da edo saiatzen gara, behintzat. Neska kinto bat. Dantzarien altura ere kontuan hartzen da.

6 Nola ikasi duzue? Laguntzarik izan duzue?

Gehiena aurreko urteko bideoekin egin dugu. Gure artean zailak baditugu helduagoi laguntza eskatzen diegu. Baina orokorrean guk egiten dugu dena. Kintoek kinto gazteei erakusten diegu, aurreko urtean egin genuelako ere.

7 Nola doaz entseguak?

Nahiko ongi, baina batzuetan gehiago kostatzen da. Agian ez gara ongi oroitzen pasaden urtean egin genuenaz eta zalantzak sortzen dira ea alde batera edo bestera den. Bideoak ikusten ditugu eta gure artean erabakitzen dugu.

8 Dantza urteekin aldatu da?

Baietz esaten dute. Batzuk esaten dute orain gaizki dantzatzeko dela; pauso batzuk ez ditugula lehen bezala egiten, baina ez dakit zehazki zer.

9 Zer suposatzen du zuentzat San Saastin egunean alkate dantza egiteak?

Emozioa. Herriko kintoa zara eta herriari, prestatu duzuna

erakusteko gogoia duzu. Gogoia dugu, eta pixka bat urduri gaude ea dantzak nola ateratzen diren ikusteko. Gero dena segituan pasatzen da.

10 Nola janzen zarete?

Baserritarrez, eta neska bakoitzak gonaren bi aldetan zapi hortera edo koloredunak eramaten ditugu. Dantza batean hasieran zapiekin lotuta joaten gara sartzen garenean.

11 Ondoren kinto ospakizunak datoz. Noiz ospatzen dituzue? Zer egiten duzue?

Bi egun irauten dituzte, otsailaren 12tik 13ra, astelehen eta asteartea. Lehenengo egunean herriko puntu batean elkartzen gara, plazan normalean, eta herriko kaleetatik eskatzen hasten gara musikaren laguntzarekin, trikitixak eta bonboa. Dirua eskatzen joaten gara bazkaltzeko ordura arte. Herriko taberna batean bazkaltzen dugu eta arratsaldean herrian zehar dirua eskatzen jarraitzen dugu. Gauen, afaldu ondoren, Tolosako inauterietara joaten gara eta bueltatzen garenean etxera joaten gara, arropaz aldatzen gara, eta eskatzen jarraitzen ateratzen gara berriro. Egun horretan nekatuago gaude eta gutxiago eskatuko dugu. *Alkate dantza* bakarrik San Saastin egunean eta Lakuntzako Pertza egunean egiten dugu. Egun horretan Biltzik antolatzen du dantza, baina kintoek dantzatzeko dugu ere. Lehen Corpus egunean ere kintoek dantzatzeko zuten, baina COVIDarengatik edo ez dakigu zergatik utzi zen, eta ez da ohiturarekin jarraitu.

MATRIKULAZIO KANPAINA

2024-2025

ZUEN IKASTETXERAKO BEHAR DUZUEN
MATERIAL GUZTIA

619 821 436 - 948 564 275
info@gkomunikazioa.eus - Foru plaza, 23-1. Altasu